

uk

71. zenbakia / 2004 azaroak 21



EUSKARAZ JANTZI

EUSKARAREN VI. JARDUNALDIAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Gabonetako argiak. Asier Mentsaka.
6. PLAZA. Leihatila, Josu Esnaola. Emakumeen elkarteak.
7. LEHEN ETA ORAIN. Getxoko Andra Mari eliza.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Odoloste lantegia. Asier Mentsaka.
26. BERBETAN. Ramiro Pinilla. Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Andra Mari kirolegia. Konrado Mugertza.
30. ERREPORTAJEA. Erdi Aro odoltsua. Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Euskal Herria eta festa. Santi Yaniz.

KULTURA ETA AISIA

40. ZINEMA. Oskar Fernandez-en zutabea. Zinebi zinemaldia.
41. MUSIKA. Udagoieneko Ostera Getxon. Diskoen erreseinak.
42. LIBURUAK. Getxoko literatur gida eta Esti Ezkerraren zutabea.
43. KOMUNIKAZIOA. ETB-1, udagoieneko eskaintza.
44. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
45. ELKARRIZKETA. Javier Otxoa. Unai Brea.

EUSKARAZ

46. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan? Algortako Keba's Lon.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Arenas Club, 1929-30. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Almudena Cid. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Santi Yaniz



26 Ramiro Pinilla

Berbetan

Getxon kokatu duen nobela erraldoia plazaratu du Ramiro Pinillak. 18 urte emon ditu lan hau burutzen. Beragaz egon gara.



45 Javier Otxoa



12 Marije Ortego



24 Mardaras odolosteak



34 Euskal Herria eta festa



54 Almudena Cid

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak / ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza.....**abenduak 13**

Algortako anbulatorioa.....**azaroak 22**

Areetako anbulatorioa.....**azaroak 23 / abenduak 14**

Erromoko kultur etxea.....**azaroak 25**

Informazioa: 900 720 389

Etorri odola ematera, ez itxaron!



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kuba 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenetxea, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizara Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da



Aldizkari honek
Bizarra Lepoan
Euskara Elkartearen
dirulaguntza
jasotzen du



Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



GETXOKO
UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako
Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Erandioko
Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



■ Bizkaiko Foru
Aldundia
■

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Fundación
Grupo Eroski



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar
beharrezkoak
ditugu zuen
dirulaguntzak

BBK20950121109102483676

Boluntzarreta

gugeu

Garena

Urtero legez abenduaren 3. egunean Euskararen Eguna ospatuko da. Oso erraza geneukan *Gu geu* ataltxu hau topikoz betetzea: euskarak urteko egun guztiak behar ditu, erakunde publikoek ez dute behar adina egiten galzorian dugun gure hizkuntza zaharra aurrera ateratzeko, euskara salbu ikusi arte ez dugu moztuko bizarra...

UK-ko beharginok badaramatzagu urte asko euskalgintza deitzen zaion “negozio” honetan eta, egia esan, aspalditik gaude aspertuta –abrosidute, eskualdeko berbakeran– aurreko diskurtso etsituakaz.

Euskal Herri erabat euskaldun batekin egiten dugu amets, etorkizun idilikoa bailitzan. Aldi berean, izan ginen herri euskaldunaren nostalgiak jota gaude, eta gainera gaur bizi dugun egoera ez da gura genukeena. Etsitzen gara. Oraina bizitzen uzten ez digun iraganaren eta etorkizunaren arteko tentsio nekagarri hori bizitzea tokatu ei zaigu.

Hau guztia gainditzeko irtenbide bakarra oraina bizitzea dela ondorioztatu dugu. Eta gustatzen ez bazaigu ere, hasteko, egin behar dugun lehenengo gauza komunitate txikerra eta minorizaturia garela onartzea da. Hori da daukaguna. Eta ez da gitxi, txikerra izan arren oso aktiboa ere badelako. Esaterako, laster Euskararen Eguna dela-eta makina bat emanaldi, kontzertu, antzerki... antolatut dira bai Getxon, bai inguruko herri gehienetan. Hortxe dugu aukera konplexu barik euskaraz dibertitzeko, oraina bizitzeko. ⁴

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero erosi > berria



GETXO, 2004-11-10

Argi artifiziala / Azaroaren lehenengo egunetan irudi honekin egin zuen topo aldizkari honetako argazkilariak. Sarritan herrian egiten diren mantenu lan arruntaren bat zelako ustea zuen berak. Oker zebilen. Gero jakin genuen honezkero Gabonetako kale argiztapena ipintzen hasi direla udaleko behargin arduratsuak. Antza, gure bihotz ilunek gero eta lehenago behar dute neoi hauen gezurrezko argi kontsolagarria. / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Esnaola

Irudiak

Irudiaren eta, ondorioz, itxuraren gizartean bizi gara. Adin batetik aurrera jendeak zimurrak kentzen ei ditu, ez urteak kentzeko, ez gaztetzeko, hori ezinezkoa da-eta, gazte itxura emateko baizik. Gauza bera gertatzen da bizitzako gainontzeko alorretan.

Bizitza bera ikuskizun bilakatu da. Horrela bakarrik uler daiteke telebista kate guztietan Basetxea, Gran Hermano, Esta es mi gente eta antzeko saioak agertzea.

Itxura denez, baina, irudi guztiak ez dira zilegi. Galde diezaietela, bestela 11-M legez ezagutzen dugun atentatu osteko irudiak interneten jartzeagatik atxilotu dituztenei. Biktimen eta euren familiartekoen intimitatea urratu ei dute. Zenbatetan ikusi ditugu halakoak egunkarietako lehen orrietan? Zenbatetan telebistetako albistegietan? AEB ere saiatu izan dira Iraken hildako estatu batuarren irudiak inon ager ez daitezen.

Irudia eta irudikeria. Itxura eta itxurakeria. Mundua jada ez da zirkua, telebista saio erraldoi eta etengabea baizik. Gutxienez aukera ezazu zeuk zein paper jokatu nahi duzun, eta ahal bada ez dadila dena pose hutsa izan. Azken agerraldiraino. 4

IRITZIA

Azaroaren 25ean ‘Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna’ da. Honen inguruan emakumeen elkarteek plazaratu berri duten agiria duzue azpikoa

Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka

Emakumeen aurkako indarkeriak ez du mugarik, ez adinik ezta klase sozialik ezagutzen. Tratu txarrak, eraso sexualak, emakumeen trafikoa edo behartutako prostituzioa genero indarkeriaren alde desberdinak baino ez dira eta bere biktima nagusiak neskatoak eta emakumeak izaten dira. Tratu txar fisiko eta psikikoak historikoki arazo pribatutzat jo dira eta horietan ez zen esku hartu behar. Azken urteotan, ostera, garrantzi handiko gai publikoa izatea lortu da eta erakundeek esku hartu behar izan dute. Azkenaldian , esaterako, genero indarkeriaren gaineko behatokia sortu da, lege bat onartuko da laster eta gurean biktemen arretarako protokolo instituzionala ere ezarri da.

Hala eta guztiz ere, emakumeen aurkako indarkeria etenik ez duen errealitatea da, estatistikei edo komunikabideei erreparatuz gero, errealtate beldurgarri honen larritasunaren ideia txikia baino ez dugu ikusiko. Txikia diogu, tratu txarren kasuen %30a baino ez delako salatzen. Sarritan, indarkeria egoera bat biktimarentzako beranduegi denean baino ez dugu ezagutzen. Aurten, honezker 79 emakume hil dituzte estatuan.

Indarkeria hau ez da bakarrik ezkonduen artean ematen, nerabeen artean ere badago.

Lehenengo maitasun horretan, ezjakintasunagatik dena barkatzen da: lehenengo oihua, lehenengo belarrondokoa... Bizkaiko Foru Aldundiak harrera etxez eman dituen azken datuek txarto tratatutako emakumeen estereotipoa bertan behera utzi dute. Izan ere, era honetako etxetara hurbildutakoen bataz besteko adina 24 urte dira.

Genero indarkeriak bizi dugun ezberdintasun estrukturalaren egoeran ditu sustraiak.

Mende askotatik barneratuta daukagu, oso ondo ikasia, eta horregatik guri tokatu arte ez gara arazoaren larritasunaz apenas ohartzen. Arazoari aurre egiteko modu bakarra era guztietako ezberdintasunak gaindintzea da. Horretarako, pertsona guztien ahaleginak behar-beharrezkoak dira, ikastetxeetan, erakundeetan, komunikabideetan, pertsonen arteko harremanetan...

«Aurten, honezkero 79 emakume hil dituzte estatuan»

Horregatik guztiagatik, hauexek dira gure eskaerak: **Erakunde publikoei:** Genero indarkeria lehentasunezko gaitzat jo dezatela eta euren baliabide eta ahalagin guztiak erabil ditzatela bai prebentzioan, bai biktimen arretan.

Komunikabideei: Emakumezkoen aurkako indarkeria ez dezatela morbozko gai legez jorratu, edo efektu narkotikoa eragiten duten berrien segida legez. Gaia sakon eta merezi duen ganoraz lan dezatela, analisiak eta alternatibak eskainiz, eta emakumeen elkarteen iritzia plazaratuz.

Azkenik, gizon eta emakume guztiei: Emakumeen aurkako indarkeriaren arrastorik txikiena ere ez onartzea. Arazo sozial eta politiko handia da hau eta horregatik gizarte gaixo hau aldatzea ahalbidetuko duten baloreen aldeko apostua egin behar dugu. Nekez dei diezaioke gizarte batek bere buruari demokratiko, pluralista, solidario eta garatu, indarkeria mota hau errotik desagertarazteko baliabide nahikorik ipintzen ez badu. Berdintasunezko harremanak sortuko ditugunean, emakumeen aurkako indarkeriarekin amaituko dugu. 4

Eskuz-esku, Gizatiar, Roda, Alboa, Lagun artean, Andrak, Etxekin (emakumeen elkarteak)



Iraganez doa denbora* beti / ANDRA MARI ELIZA 1956-2004

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > OHE bat Algortan?





David Barberoren *Doña Juana de Tenorio* lana oso-
osorik bertsotan dago idatzita. Don Juan maitale
ezagunaren istorioetan oinarritzen da, baina
engainatutako emakume batek dauka azken berba,
eta Albisuk azaldu legez, ezusteko amaiera dauka.

antzerkia > Itxartu, herri antzerkiaren adibide

Ixartu Teatro taldeko antzele finak dira argazkietakoak. Azaroaren 5ean *Doña Juana de Tenorio* antzerki lana oholztaratu zuten Itxartuko egoitzaren Eginkizun Aretoan. Mikel Albisu aktore ezagunaren zuzendaritzapean David Barberok idatzitako lanaren irakurketa dramatizatur eskaini zuten 100 bat ikus-entzuleren aurrean. Algortako Itxartu antzerki taldeak 8 urte daramatza antzerkiaren munduan eta 10-12 bat kidek osatzen dute taldea. Hilero antzerki lan baten irakurketa dramatizatur eskaintzen dabilza Itxarturen egoitzan, baina antzezpeneak ere egiten dituzte, *Luces de Bohemia*, *La zapatera prodigiosa*, edota *Los Arboles mueren de pie* lanak antzeztu dituzte. Itxartu antzerki taldeko kide izan gura duenak Itxartuko egoitzara hurbildu (astelehen, eguazten eta barikuetan, 20:00etan) eta frogatxiki bat gainditu besterik ez du egin behar. ^m



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

euskara > Getxoko Aholku Batzordea



Getxoko Euskara Aholku Batzordeko kideak azaroaren 10ean batu ziren azkenekoz

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) egokitzen laguntzea da Getxoko Euskara Aholku Batzordearen zeregin nagusia. Batzorde horrek udalari laguntzen dio EBPN osatzen, aholkuak eta ideiak emanez, eta gizarte eragileen ekarpenak aztertuz. Azken batean, euskararen erabilera zelan bultzatu eta indartu daitekeen aztertu eta udalari proposamenak aurkeztea da bere egitekoa. Iaz ekin zion lanari eta hizkuntza-normalizazioan eragina daukaten esparruetan dabilen jendeak osatzen du Batzordea: Irkus Ansotegi, Ricardo Bilbao, Joseba Butron, Josu Esnaola, Mikel Etxegia, Zelai Nikolas, Joseba Santxo, Unai Amezaga, Iñaki Benito, Beatriz Fernández, Konrado Mugertza, Isabel Etxebarria, Iñaki Zarraoa alkatea, Imanol Landa udaleko Lehendakaritza zinegotzia, Elena Coria euskara zinegotzia, Joxi Arakama euskara teknikaria, eta Jabi Aranguena euskara teknikaria eta idazkaria. ^m

kale izendegia > Cervantes



Gaztelaniazko literaturaren obra nagusitzat jotzen den *Mantxako On Kixote* liburuaren egile madrildarrak txoko bi dauzka gurean: Areetan (kale bat) eta Leioako Pinueta auzoan (plaza bat). Bizitza gorabeheratsua izan zuen Miguel de Cervantesek. 22 urte zeuzkala, Italiara ihes egin behar izan zuen kartzelara ez joateko; Lepantoko batailan parte hartu eta besoa galdu zuen, pirata albaniar batek bahitu egin zuen eta bost urtez preso egon zen; Andaluzian barrena herririk herri ibili zen Armada Garaitezina finantzatzeko laguntza jasotzen (esperientzia horrek, hain zuzen, piztu zion bere obrarik garrantzitsuena idazteko ideia); diru-kontuak zirela-eta, berriro espetxeratu zuten... Cervantesek gortearen ondoan eman zituen azken urteak, baina miseria gorrian hil zen 1616an, 69 urtegaz. ^m



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA



Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BISITATU GURE DENDA!





350 ^{m²}
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Euskararen jardunaldiak

Euskara eguneroko bihurtzea helburua daukaten jardunaldiak aurten beteko dute **seigarren urtea**. Ekitaldien jarioak ez du atsedena hartzeko aukerarik emango **abenduaren 3ra arte**

Hamaika kolorez jantzita, milaka usainez inguratuta, ehunka zapo-rez egosita, ukiezinezko sentipenek bultzatuta; baina euskararen soinuagaz baino ez dantzan, Euskararen Jardunaldiak seigarren urtea beteko dute aurten. Euskara Zerbitzuak ekitaldiak gogotik antolatu ditu, haur, gazte zein helduek badute non gozatu azaroaren 21etik abenduaren 3ra bitartean.

Euskara eguneroko bihurtzea, eguneroko bizitzan parte hartzen duen tresna izateko helburuari eutsiko diote 6. urtez Getxoko Euskararen Jardunaldiak. Azaroaren 21ean hasi eta abenduaren 3ra arte hamaika dira Getxoko Euskara Zerbitzuak antolatutako ekitaldiak. Kirola, musika, bertsolaritza, dantza, literatura... esparru askotako jarduerak osatzen dute egitaraua. Haur, gazte zein helduek ez dute aspertzeko aukerarik edukiko.

Ekitaldiak egunez egun
Azaroaren 21ean, urtero legez, Aerobic Maratoiak emango die hasiera jardunaldiei (Andra Mari kiroldegia, 17:00). Xuka taldearen “Iturrian zer dago?” bertso eta dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera emango du azaroaren 23ak. GazteJainahaste jaialdiko kontzertuek hartuko dute lekukoa azaroaren 26an. Hurrengo bi egunetan itzel pasatuko dute umek Betizuren emanaldia-gaz eta Pirritx eta Porrotx pailazoakaz. Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren 2. fina-



Euskaltegien arteko olinpiadak abenduaren 3an izango dira

laurrekoa azaroaren 28an izango da. Loli Astoreka, Ane Gabarain, Asier Hormaza eta Aitziber Garmandiaren umoreak alaituko du abenduaren lehengo gaua. Hilaren bigarren iluntzea, ostera, letrez jantziko da Getxoko idazleen mahainguruagaz, eta abenduaren 3an Joselu Anaiak taldeak

«Erakusketak, mahainguruak, kontzertuak, antzerkia, bertsolariak, pailazoak...»

emango die amaiera autengo Euskara Jardunaldiei. Euskara Zerbitzuak hainbat erakunde eta taldegaz egindako lanaren emaitza dira jardunaldiok, besteak beste: Bizarra Lepoan Euskara elkarte, UK, Egizu, Udagoieneko Ostera, ALBE eta Getxoko Udaleko Gazteria Zerbitzua. m

Ekitaldi batzuk

- **“Habla en cristiano” erakusketa.** Torrene kaleko BBKren erakustaretoan. Azaroaren 30tik abenduaren 19ra.
- **Iturrian zer dago?.** Bertso eta dantza ikuskizuna. Getxo Antzokian. Azaroaren 23an, 20:30ean. Sarrera doan.
- **Betizu.** Areetako Geltoki plazako karpan. Azaroaren 27an, 20:00etan. Sarrera doan.
- **Pirritx eta Porrotx pailazoak.** Areetako Geltoki plazako karpan. Azaroaren 28an, 12:00etan eta 17:00etan. Sarrera: 2 euro.
- **Umore Gaua.** Piper’s Irish Pub-ean. Abenduaren 1ean, 19:00etan. Sarrera doan.
- **“Getxoko idazleak” mahaingurua.** Torrene kaleko BBKren erakustaretoan. Abenduaren 2an, 19:00etan.
- **Euskaltegien arteko olinpiadak.** San Nikolas plazan. Abenduaren 3an, 11:00etan.
- **Erromeria.** Joselu anaiak. San Nikolas plazan. Abenduak 3an, 19:30ean.

Getxotik Mundura

Urrutikoen beharrianak emango dira ezagutzera hilaren 20tik 26ra bitarteko elkartasun jardunaldietan



Sahara eguna egingo da hilaren 20an Algortako Geltoki plazan

Azaroaren 20tik 27ra elkartasun oihartzuna hedatuko da Getxoko bazter guztietara, Getxotik Mundura VII. jardunaldiak gauzatuko dira-eta egun horietan. Getxoztarrak lankidetzatza gaitan sentsibilizatzea, beste herri batzuen behar eta arazoen berri ematea eta udalak bultzatzen dituen egitasmoak azaltzea dira jardunaldion helburuak. Horrez gain, erakusketak, hitzaldiak, zinema emanaldiak etab. antolatu dituzte, guztien artean leku berezia dauka Sahara Egunak. Getxo Pro-Sahara Aftal GKEk antolatzen du ekitaldi hori eta hilaren 20an egingo da. Algortako Geltoki plazan ipiniko duten haiman argazki eta artisautza erakusketa, lantegiak etab. antolatu dituzte. Hu-

rrengo egunean garapenerako GKEek elkartasun azokaren txanda izango da.

Azaroaren 22an Euskal Fondoaren Batzarra egingo da Getxo Antzokian (19:30). Hilaren 23ko eta 24ko ekitaldi nagusiak inmigrazioaren gaineko hitzaldi bi dira (ikus agenda). Gainera Emakumearen Kontrako Bortizkeriaren Aurka-ko Nazioarteko Eguna dela-eta elkarretaratze isila egiteko deia egin dute hilaren 25erako Areetako Geltoki plazan (19:30), eta biharramunean *Nosforth* filmaren emaldiak emango die amaiera jardunaldiei. Bestalde, aipatu bi erakusketa egongo direla ikusgai Fadurako Hallean eta Erromoko Kultur Etxean hilaren 20tik 27ra. m

GENERO INDARKERIAREN AURKAKO BATERATZE ISILA, AZAROAK 25

Emakumeen Kontrako Biolentziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a. Emakumeen kontrako indarkeria eta bortizkeria salatuzko, eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeei elkartatsuna adierazteko asmogaz elkarretaratze isila egiteko deia egin dute udalerriko hainbat emakume elkarte: Eskuz Esku, Gizatiar, Roda, Lagun Artean, Andrak eta Etxekin. Elkarretaratzea Areetako Geltoki plazan egingo da arratsaldeko 19:30ean. Esan barik doa, ez dela emakumei bakarrik egindako salaketa-deia.

‘IMMIGRAZIOA ETA GARAPENA’ HITZALDIA HILAREN 25EAN

Egizuk urtean zehar antolatzen dituen hitzaldi sortaren barruan pare bat iragarri dituzte hil honetarako. Hurrengo hitzaldia, “Immigrazioa eta Garapena; Magrebiarren urtebeteko esperientzia”, Txus Elorza soziologo eta Immigrazio arloko ikertzaileak emango du. Berbaldia Villamonteko Kultur Etxean izango da azaroaren 25ean arratsaldeko 20:00etan.

KIROL PORTURAKO HAINBAT PROIEKTU ONARTU DITU UDALAK

Kirol Portuan egingo diren Arraunketa pabiloia (1.000m koadro) eta Bela Eskola (400m koadro) hartuko dituen eraikinaren lanak 2005ean hasiko direla , eta lanok bi urtetan amaitzea aurreikusten duela adierazi du Getxoko udalak. Bestalde, Kirol Portuko alde teknikoaren proiektua ere onartu du udalak: itsasontziak konpontzeko 7 behartoki egingo dira, eta Getxo Kaia elkaratek gero alokatu egingo ditu. Horrez gain, udalak jakinarazi berri du Eusko Jaurilaritzak hartuko duela bere gain Gurutzontzien Kaia eraikitzeko gastuak.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

A

Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa

Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta

Tel/Fax: 94 430 11 91

UKA

UKA

GA

GALEA

ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA

JURIDIKOA, FISKALA

LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA

% 94 460 95 12

ESKOLA

LAGUNTZA

• Matematika, Fisika...

• Maila guztiak

10 urteko eskarmentua!!!

T.: 655 739 964

amesti

obra-proiektuak

Berrikuntzak

Eraikuntzak

Etxebizitzak

Lokalak

Bulegoak

Basagoiti etorb. 56

48.991 Algorta

Tel. 944 915 298

Fax 944 915 299

amesti@amestiur.com

Marije Ortego > Aixerrota BHI-ko zuzendaria
“Ikasleen laguntza behar dugu tratu txarrak antzemateko”



Aurtengo ikasturtea da Marije Ortego Aixerrota BHI-ko zuzendaritzan beteko duen azkena

Aixerrota Bigarren Hezkuntzako Institutua 1998an sortu zen bi ikastetxe-ren bategitetik: Getxo III (1979) eta Lanbide Heziketako Aixerrota (1983). Azken 3 urteotan Marije Ortego izan da Aixerrotako zuzendari eta aurtengo hau dauka azkena. 730 bat ikasle dabiltza gaur egun Aixerrota institutuan.

—Euskara eskolan eta gaztelera kalean...
—Betiko topikoa dela uste dut, nik uste nagutzen direnean kontzientziadunagoak direla, eta euskara gehiago erabiltzen hasten dira. Erabilera, lagun talde, adina eta ohitura kontua ere bada. Badakigu guk eskaintzen duguna gehien bat hizkuntza teknikoa dela. Ikasleen txipa euskara eskoletako hizkuntza dela da, akademikoa, eta gaztelera kalekoa. Horren albotik, kaleko hizkera lantzeko ikastaro txikiak egiten hasi gara, haien arteko harremanak euskaraz ere gauzatu daitezkeela eta euskara eguneroko bizitzan guztiz erabilgarria den hizkuntza dela erakusteko.

—Zein da drogen kontsumoaren inguruan jarraitzen duzuen heziketa-bidea?
—Beti gaude adi. Drogen kontsumoari aurrea hartzeko neurriak eta ekintzak egiten ditugu. Horrelako gaiak tutoretza orduetan, Alternatiba irakasgaiaren bitartez edota erlijio eskole-

tan lantzen dira. Gure aldetik bi egiteko ditugu: prebentzioan hezi behar ditugu eta irakasle bakoitzak oso adi egon behar du. Guk ikastetxe barruan gertatzen dena kontrola dezakegu baina hemendik kanpo gertatzen dena...
—Jokin auziak hainbat gai azaleratu ditu.
—Oso gertaera latza izan da. Horrelakorik berriro gertatu ez dadin hartuko ditugun neurriak ez dira, bat bera ere ez, alferrikakoak izango. Informazio asko jaso dugu egoera aztertzeko, baina informazio hori eskola komunitate osoari eman behar zaio, irakasleei, gurasoei, ikasleei... denok egon behar dugu adi. Garrantzia eman behar diegu horrelako joerei, askotan “umekeria bat da” diogu, baina ondo

“Euskara eguneroko bizitzan guztiz erabilgarria dela erakusteko ikastaroak ditugu”
aztertu behar dugu jolasa edo benetan tratu txarrak diren. Ezin dugu onartu umeak tratu txarrak sufritzea, berdin dio nagusi batek edo ume batek eragindakoak izan. Egoera horiek ez dira ia inoiz gertatzen nagusien aurrean, bakarik daudenean baino ez, horregatik behar dugu ikasleen laguntza. Baina, ikasleek ez salatzeko paktoa edo daukate, ahalegintzen gara ulertarazten ez dela salatzea, informatzea baizik. m

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa Finalaurreko bat hilaren 28an, Getxon



Unai Iturriaga Getxon egingo den finalaurrekoan egongo da

Azken aurreko txanpari ekiteko prest dago Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. 30 bertsolarik hasi zuten Bizkaiko txapela bururatzeko bidea, horietatik 11 izan dira finalaurrekoetan jarduteko galbahea gainditu dutenak. Eurekaz batera 2002ko txapelketako finalistek jardungo dute: Igor Elortza, Unai Iturriaga, Iratxe Ibarra, Fredi Paya, Igor Muniategi, Etxahun Lekue eta Oihane Enbeitak. Hau da, finalaurrekoetan 18 bertsolarik hartuko dute parte, eta 7 bakarrik eskuratuko dute Euskalduna

Jauregiko (abenduak 19) finalerako txartela. Hiru finalurreko antolatu dira eta bakoitzean seina bertsolari lehiatuko dira. Lehenengo finalurrekoa Bermeon egingo da (azaroak 21), bigarrena Getxo Antzokian (hilak 28,) eta azkena Elorrion (abenduak 5). Ekitaldiok 17:30ean hasiko dira. Getxon hauexek jardungo dute: Unai Iturriaga, Etxahun Lekue, Oihana Bartra, Arkaitz Ugartetxea, Garikoitz Sarriugarte eta Eneko Abasolok. Fredi eta Xabi Paya getxoztarrak biak daude sailkatuta. m

GRAFFITI ERAKUSTALDIA ANTOLATU DUTE EUSKARA JARDUNALDIEN BARRUAN

Euskara Jardunaldien baitan graffiti erakustaldia antolatu dute azaroaren 26rako. Ekitaldia Areetako Geltoki plazan egingo da arratsaldeko 15:00etatik 20:00etara. Getxoko udaleko Gazteri Zerbitzu sortu berriak sustatu eta lagundu duen ekitaldiak, Uribe Kostako eta inguruko herrietako graffiti egileen bitartez, kaleko arte adierazpen hori hobeto ulertzen laguntzea dauka helburu. 24 metro luzeko egurrezko ohol batean egingo dituzte graffitiak eta besteak beste hurrengoek hartuko dute parte erakustaldian: H49 taldeko Josu Luengo eta Kepa Peñil, GM taldeko Maider Celada, Aitor Gimenez, Asier Lopez eta Ivan Montero eta muralarte.com-eko Alex Mosterin.

UMEENTZAKO KALE LUDOTEKAK ALGORTAN ETA AREETAN

Kale Ludoteka, 5 eta 11 urte bitarteko umei zuzendutako ekimen berri eta berezia, ipini du martxan Getxoko udalak. Herri kirolak, euskal jolasak, olinpiadak, gaztelu puzgarriak, sormena lantzeko lantegiak... egongo dira Algortako Geltoki plazan bariku arratsaldeetan (azaroak 19 eta 26, eta abenduak 10 eta 17). Areetako Geltoki plazan, ostera, zapatu goizetan egongo da Kale Ludoteka (azaroak 20 eta 27, eta abenduak 11 eta 18). Udal arduradunek azaldu legez, aisia hezkuntzagaz lotu gura du ekimenak eta umeentzako hain esparru garrantzitsua den jolas eremuan euskara sustatzea da asmo nagusietako bat.

RENAULT

ocasión

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

“0 Km”dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. RENAULTen bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

RENAULT

BILBO BERRI

Bizkaia/k.z/g. - ALGORTA

Tel.: 94 410 61 81

Jon Arrispe, 20 - EUSTO

Tel.: 94 448 39 00

12UK

UK 13

[leioa]

Zinema Kultur Leioan

Herriko kultur etxe berrian zinema **areto berria** ipini dute eta lehen ez bezala astero filmak pantaila handian ikus daitezke. **Asier Elordui** zinema arduradunarekin egon gara

—Zelakoa da zinema areto berria?
—Oso ona. Akaso, batzutan apur bat txiki geldituko da, baina, bai soinu alde-tik, zein espazio aldetik oso ona da; edo-zein lekutik ondo ikusten da, eta hori eskertzekoa da.
—Ze zine mota ikusiko da Kultur Leioan?
—Aurretik zegoen Zine Foruma —Perseo Elkarteak antolatzen zuena— gure progra-man sartu dugu. Pelikula hauek ez dira komertzialak izaten. Gaiak edo zuzenda-riak hartuta aukeratzen ditugu pelikulak. Filmen hasieran sarreratxo bat egiten dugu eta bukatutakoan denon artean komentatzen dugu. Bestetik, haurrei zuzendutako zinema eskaintzen dugu. Hilean bi edo hiru pelikula euskaraz izaten dira. Azkenik,

“Pelikula oso onak prezio merkean eskaintzen ditugu”

zine komertziala deitzen duguna ere eskaintzen dugu. Hala ere, kontuan hartu dugu inguruan bi zine areto handi ditugula eta, horregatik, “bestelako” pelikulak aukeratzen saiatzen gara. Nolabait azaltze-ko, Bilboko Multi zinematlan ikusten diren erako pelikulak erakutsi nahi ditugu.
—Etorkizunera begira zer daukazue buruan? Leioako Zinemaldirik edo?



Argazkian, Asier Elordui bere bulegoan

—Maiatzean Zine Forumeko Perseo elkar-tearekin batera zine astea antolatuko dugu, eta zuzendariak, aktoreak,... ekartzeko asmoa daukagu. Gero, seguru asko Zi-negoak Zinemaldiarekin (Gay, Lesbiana eta transexualen zinemaldia) elkarlanean hasi eta zinemaldi horren partaide izango gara. Horrelako gauzetan sartu nahi dugu burua, baina ez dugu Leioako Zinemaldirik egite-

ko asmorik, oraingoz behintzat ez. Horre-tarako diru asko behar da eta, gainera, gero oso zaila da urtez urte mantentzea.
—Zer esango zenieke herritarrei zuon zinema eskaintzaz?
—Pelikula oso onak prezio merkean ikus-teko aukera paregabea dute gurean. Gai-nera Kultur Leioa herrian bertan dago, be-raz ez dute autoaren beharrik izango. m



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu

e-mail: hurstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

euskararen eguna

TRIKI POTEOA

AZAROAK 26
26 DE NOVIEMBRE

- 20:00etan
- Bertso Jira
- 21:30etan
- Afaria: Legaran Jatekxan
- Apuntatzeko: azaroaren 19ra arte, goizez Udal Euskaltegian, arratsaldez Hall Kulturalan

UMEEN EKINTZAK ACTIVIDADES PARA NIÑOS

AZAROAK 27
27 DE NOVIEMBRE

- 18:30etan
- Kultur Aretoa
- Ekintza: Umeentzako antzerkia
- Antzezlanak: MUZZIKIREN bidala hamargarria

AZAROAK 28
28 DE NOVIEMBRE

- 18:30etan
- Hall Kulturala
- Ekintza: Umeentzako antzerkia
- Antzezlanak: MARILURREK 5.722.630 ipuin dakizki.

IPUIN KONTALARIA CUENTA CUENTOS

ABENDUAK 3
3 DE DICIEMBRE

- 10:30etan
- Udal Euskaltegi
- Koldo Amestoy

HITZALDIAK CHARLAS

→ 19:30etan

→ Hall Kulturala

AZAROAK 29
29 DE NOVIEMBRE

- Asisko Urmeneta, Antón Olariaga eta Kike Amonariz
- "Euskara lardaskatzeko manierak"

AZAROAK 30
30 DE NOVIEMBRE

- Bikoteatroa
- "Euskara sencilloaren manifestoa"

ABENDUAK 1
1 DE DICIEMBRE

- Juan Ramon Madariaga
- "Cho-Oyura egindako espedizioa 2003an"

ABENDUAK 2
2 DE DICIEMBRE

- Jon Arretxe
- "Zazpi kolore, munduko koloreak"

KONTZERTUA CONCIERTO

ABENDUAK 10
10 DE DICIEMBRE

- 21:00etan
- Urko Polikroidegion
- URKOren kantaldia
- Recital de URKO
- Sarrerak salgai Hall Kulturalan

ander deuna eguna

AZAROAK 30, ASTEARTEA
MARTES, 30 DE NOVIEMBRE

- 11:00etan
- Barinatxe Txistu Taldea txistulariekin kalejira udal-etxetik Ander Deuna basilizara
- Pasacalles desde el ayuntamiento a la ermita de San Andrés con los txistularis de Barinatxe Taldea

- 12:00etan
- Meza santua Ander Deuna basilizan
- Misa en la ermita de San Andrés

- 12:30etan
- Chorezko Aureskua, hamaiketakoa eta erromeria
- Auresku de honor, lunch popular y romería





Ibon Astorkiza > hainbat telebista lehiaketatan hartu du parte

“Memoria fotografikoa daukat”

Lehenago Zientzia Politikoak egin zituen eta orain zuzenbide ikasketak amaitzeaz dago. 20 urterekin euskara ikasten hasi eta 24rekin EGA ateratu zuen. Telebistako hainbat lehiaketatan agertu da eta guztietan irabazi du. Bere buruan konfiantza osoa dauka halako erronkei aurre egiteko. Zaletasun horren gorabeherak ezagutzeko asmoz joan gara berarengana.

—Ibon, telebistako zenbat lehiaketatan agertu zara?
—Azken sei urteotan bost programatan hartu dut parte eta bakoitzean egun batean baino gehiagotan: ‘Uno de los nuestros’, ‘Todo o nada’, ‘Euskadi reta’, ‘Axut’ eta azkenengoz Carlos Soberaren ‘Date el Bote’ saioan. Galdera-erantzunak estiloko lehiaketak ditut nik gustuko eta zinea da nire gai fuertea.
—Zerk errotan zaitu telebistara, ospetsu izan gura, ala?
—Dirua irabaztea eta jakituria erakustea dira nire helburuak.
—Prestaketa berezirik egiten duzu saioetara joateko? Zein da zure sekretua horrelakoetan garaile ateratzeko?
—Ez, baina telebista asko ikusten dut, batez ere filmak, dokumentalak eta bihot-



Ibon Astorkiza: “Dirua irabaztea eta jakituria erakustea dira nire helburuak”

zeko programak, galdera asko horrelakoak izaten dira eta. Gero, gurutzegramak egiteko ohitura daukat eta garrantzitsuenaz zera da, ez naizela urduri jartzen kamera aurrean eta etxean dakidana platon ere badakit. Konfiantza osoa daukat.
—Zeintzuk dira zure hurrengo erronkak?
—‘Pasa palabra’ programan 702.000 euroko botea daukate egunotan, eta bihar bertan bidaliko dut e-maila, baina zaila da estatu mailakoetan sartzea. ‘Saber y ganar’ programara 6 gutun bidali ditut eta oraindik ez didate deitu. Egutero ikusten dut.

—Horrelako programa batean diru asko irabaziko bazenu, zertan gastatuko zenuke?
—Pisu baten sarrera ordainduko nuke eta amari dirua emango nioke lana uzteko.
—30 urte dituzu, gurasoenean bizi zara; zeren zain zaude etxetik alde egiteko?
—Gurasoenean oso ondo nago, baina dirurik edukiz gero joango nintzateke. Ikasketak amaitzen ditudanean lan bila hasiko naiz serio, abokatu, enpresaren baten aholkulari edo horrelako lanen bat. Etxetik joatekotan neska lagunagaz bizitzera joango nintzateke, jakina, eta ez lagunekin konpartitutako pisu batera. Eta orain ez daukat neska lagunik. m

Euskararen aholku batzordeak azaroaren 23an egingo du hurrengo bilera



Goiko argazkian, Aholku Batzordeko kide batzuk

Udalak onartuta daukan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN), 2004ko kudeaketa planaren garapena eta datorren urteko planaren prestaketa eduki zituen aztergai Euskararen Aholku Batzordeak urriaren 26ko bilkuran.
Aholku Batzordearen eginkizuna Udalarik aholkuak ematea da EBPNren helburuak lortzeko eta zabalik dago gaian interes daukaten pertsona guztientzat. Azken bilkuran partaide berriak bertaratu ziren eta urtean zehar euskararen alorrean herrian egindako urratsak eta antzemandako hutsuneak aztertu zituzten. Alde batetik, herriko hainbat elkarte eta parrokiek euskara planak egiteko erakutsi duten prestutasuna eta, bestetik, Udal Musika Eskolan euskararen erabilera bermatzeko plangintza

zehatz baten beharra azpimarratu ziren. Izan ere, Musika Eskolan euskarak eta euskal musikak duen leku eskasa izan zuten hizpide, berriz ere, batzordekideek. Musika Eskolan seme-alabak dituzten gurasoak kexu dira entzunaldietan eta ikasgeletan ez delako euskaraz ezer ere egiten, material guztia erdarazkoa delako, ikaslerik gehienak D edo B ereduetan ikasten ibili arren.
Horrez gain, euskara teknikari berriaren aurkezpena egin zuten. Ana Hernandez izango da aurrerantzean Fernando Simonekin batera Euskara Zerbitzuko teknikari.
Hurrengo bileran udal ordezkariak proposamen zehatzak jaso nahi dituzte, 2005eko kudeaketa planean sartu beharreko neurri eta ekintzen gainean eta azaroaren 23rako egin dute deia.. m

HASI DIRA OBRAK ARTEAGA KIROLGUNEAN

Bilera lekuak eta taberna hartuko dituen gizarte-etxea, harmailak, aldagelak eta aparkalekuak eraikitze lanetan hasi dira Erandio Goikoako Arteaga kirolgunean. Milioi bat eta bostehun mila euroko aurrekontua du Udalak gastuei aurre egiteko eta lanak datorren maiatzetako amaitu gura dituzte, Dantzari Egutegiko ospakizunak bertan egin ahal izateko. Astrabuduko, Erandio eta Apurtuarte futbol taldeek erabiltzen dituzte gaur egun Arteagako futbol zelaia eta kirolgunea, entrenamenduetarako nahiz partidetak, eta behar-beharrezkoak dituzte azpiegitura horiek. Horrez gain, kirolgunetik Asuko biribilguneraino espaloia eraikitze hitzarmena sinatu du Udalak Foru Aldundiarekin.

Arteagako futbol zelaia



JUAN MARI BELTRANEN KONTZERTU DIDAKTIKOA AZAROAREN 25EAN

Juan Mari Beltranek Euskal Herriko musikaren zenbait alderdi erakutsiko ditu Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean eskainiko duen hitzaldi-emanaldian. Euskal Herriko zenbait eskualdetako ospakizun publiko zein familiarretan erabiliak izan diren soinu-tresnak eta musikak entzun ahal izango dira. Horrela, mota askotako musika-tresnak ikusi eta entzungo ditugu: kanabera, toberak, kirikoketa, txalaparta, tronpa eta abar. Berbots euskara taldeak antolatutako emanaldi hau iluntzeko 20:00etan hasiko da.

Torre 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
D E I T U !

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Villa de Pientzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Txopel sarien banaketa

Sopelanako izen ona lau haizetara zabaltzen duten elkarte edota erakundeak saritzeko jaio dira aurten Txopel sariak. Txopel Egunean, urriaren 29an, banatu zituzten sariak. Horietarako izendatuak asko izan ziren, lehengo postuan geratu ez zirenek diploma eta diru-sari txiki bat jaso zuten; irabazleek, ostera, “Txuzo” garaikurra jaso zuten. Hona hemen Txuzoaren jabeak: Edificaciones Duga, Jose Luis Diez, Aitziber Jauregi, Barinatxe Txistu taldea, Mamuak, Peña Atxuri, Joane Somarriba, David Perez, Isabel Tejado eta Honduraseko Sopelana eskola.



Zazpi dira Txopel sariak: apaintetarik onena, power-pointeko lanik onena, webgunerik onena, elkarterik onena, udalerria hobetzeko egiteko moduko ideiarik onena, eta herriaren izena munduan zehar ondoen zabaldu duen pertsona eta entitatea saritu dituzte.



OSABIDE HORTZ KLINIKA
Aranza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskalera. ALGORTA 94 94 430 76 96

Instalazio elektrikoak
Electro LAIA

Larrialdi Zerbitzua 24 orduz
670 415 732
LARRABASTERRA

Konpromisorik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...
mantenimendua / etxebizitza, lonja, pabilioen erreformak /
bonba hidraulikoak / telefonia, ahots eta datuen sareak

**Loteria
Sopela**

Iparragirre 6, Sopela

Ekitaldiak gogotik Sopelanan Euskararen Eguna ospatzeko



Urmenetak eta Amonarrizek, Olariagagaz batera, *Euskara lardaskatzeko manierak* erakutsiko dituzte

Abenduaren 3an ospatzen du euskarak bere eguna, baina egun bateko ospakizuna egin beharrean, euskarari zuzendutako ekitaldiz bete ditu 7 egun Hall Kulturalak, denetarik, denontzat, eta euskaraz.

Triki-poteo batek emango dio hasiera Euskararen Asteari (azaroak 26, 20:00), Igor Elortza eta Peñagarikanok gidatuko dituzte tabernarik taberna bertsozaleak, eta ondoren bapo afalduko dute. Hurrengo bi egunetan umeentzako antzerki lan bi iragarri dituzte, hurrenez hurren: *Muzzikiren bidaia harrigarria* eta *Marilurrek 5.722.630 ipuin dakizki*. Azaroaren 29an Asisko Urmeneta, Anton Olariaga eta Kike Amonarrizek “Euskara lardaskatzeko manierak” erakutsiko dituzte; biharamunean Biko Teatrokoek “Eus-

kara sencilloaren manifestoa” irakurriko dute; abenduaren 1ean Juan Ramon Madariagak “2003an Cho Oyura egindako espedizioa” azalduko du; eta, abenduaren 2an “Zazpi kolore, munduko koloreak” liburuaz jardungo du Jon Arretzek. Ekitaldi horiek guztiak Hall Kulturean egingo dira eta 19:30ean hasiko dira. Amaitzeko, hilak 3, Koldo Amestoy ipuin kontalariaren istorioak entzungo dituzte Euskaltegira 10:30ean hurbiltzen direnek.

Urkoren kontzertua, Urkon
Bide batez aipatu, Euskararen Astearen barruan, baina handik aste batera, abenduak 10, Urko abeslariak kantaldia eskainiko duela eta dagoeneko sarrerak Hall Kulturean salgai daudela. m

ARGAZKI IKASTAROA EGONGO DA BARIKUETAN

Itzartu elkarteak argazki ikastaroa antolatu du. Izena emateko epea hilaren hasieran zabaldu zen. Argazkilaritza gogoko duenak eta bere ezagutza zabaldu gura duenak ikastaroan parte hartzeko aukera dauka oraindik ere. Ikastaroa barikueta izango da eta bi orduko iraupena edukiko du, 19:30etik 21:30era. Bide batez, azpimarratu behar dugu, Itzartu Emakume elkarteak azaldu legez, ikastaro hau ez dela emakumeentzako bakarrik, gizonezkoek ere parte har dezaketela.

**LAIKAK
Taberna**

Bentatzui, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

**ANDER
DEVNA
IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutza 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

*surri haize
jan eta edan*

**4 bide
pinturak**



RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

**IPUIN KONTALARIAKAZ
OSPATUKO DUTE
EUSKARAREN EGUNA**

Abenduaren 3an ospazen da Euskararen Eguna, eta horretarako Berangoko Euskara Zerbitzuak umeentzako ipuin kontalarien emanaldia antolatu du. Urtero legez, Apika taldeak edukiko du ipuinen bitartez umeak liluratzeko ardura Berangoeta Kultur Etxean 18:00etan, eta horren ostean goxokiak banatuko dituzte. Bestalde, datorren urteari begira, Euskararen Eguna hobeto ospatzeko asteburu osoko ekitaldiak antolatzea aurreikusten du Euskara Zerbitzuak, ekitaldiak prestatzeko aurrekontuak gora egingo ei du-eta. Bide batez, aipatu, Txiki Ludotekari (3-8 urteko umeak) ipuin kontalarien emanaldia antolatu dutela azaroan zehar, hau da, ipuinak euskaraz kontatzen zaizkieke umeei barikuro Berangoetan 17:30etatik aurrera.



HIL HASIERATIK ZABALIK DAUDE BERRIRO ERE GAZTELEKUKO ATEAK

Denboraldi berriari ekin dio Gaztelekuak. 14 eta 18 urte bitarteko gazte berangoztarren topalekuak eskaintza zabala dakar aurten ere: iteerak, zinema emanaldiak, musika, mahai-jokoak, etab. Ganera, zelan ez, lagun berriak egiteko aukera itzela ematen du. Gaztelekuak Santa Anako Kultur Etxean dauka egoitza eta asteakabuetan jartzen du zita. Gazteen topaleku baino askoz gehiago den eskaintza horren ordutegia hurrengo da: zapatuetan eta domeketan 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

Ikastaro berriak hilaren amaieran

200 berangoztar dabilta ikastaro ezberdinetan



Zur lanketa ikasleak beharrean

Berango Kultur Etxeak makina bat ikastaro eskaintzen ditu urtean zehar. Helduentzako eta umeentzako ikastaro desberdinak martxan daude irailetik, batzuek urte osoko iraupena daukate, beste batzuek hiru hilekoa, eta badira iraupen laburragokoak ere. Helduei zuzendutako ikastaroen artean daude altzarien zaharberritze lantegia, margolaritza, Tai Chi, zur lanketa eta saloi dantzak. Umeei begira antolatzen dituzten ikastaroen artean, osteria, musika hastapena eta igeriketa ikastaroak aipa daitezke. Denetara ia 200 berangoztar dabilta Kultur Etxeek eskaintzen dituzten ikastaroetan. Hala eta

gutziz ere, aipatutako ia ikastaro denetan dagoeneko ez dago lekurik, “*ikastaroen berri eman eta gutxira eskainitako leku denak betetzen dira, horregatik ikasturte hasieran adi egon behar du parte hartu gura duenak, arin eman behar dute izena ezpabere leku barik lotuko dira*”, azaldu dute Kultur Etxeko arduradunek.

Bi ikastaro berri antolatu dituzte azarotik martxora: *Hirugarren adineko eta elbarrituen zaintza* (eguaztenetan) eta *Antsietatea kontrolatzeko teknikak ikasteko* mintegia (eguenetan). Bestalde, udaberriarako *Lorezaintza* eta *Lehen sorospenak* ikastaroak iragarri dituzte. ^m

[herriak]

Hernandez eta Ortuondo > Kooperante Ameriketan

"Itzuliko gara esatean, zuek ere gezurra esango al diguzue? zioskuten umeek"



Vanesak eta Alaitzek hiru hilabete eman dituzte kooperante Ameriketara


Venezuela eta Hondurasen kooperante ibili dira Vanesa Hernandez eta Alaitz Ortuondo eta orain dela hialabete eta erdi itzuli dira Urduliz eta Gorlizera. Euren begiek margoztu digute Venezuela eta Honduras, eta haien berbek azaldu bertakoen egoera eta bertakoek euskaldunakaz dauzkaten harremanak. Alaitz albaitaria da, Hondurasen proiektu zabal batean jardun du, oilo-granja batean ibili da batez ere, *“mendian, herritik 3 ordutara dauden, beste 7 oilo-granjagaz egiten genuen lan, batez ere emakumeakaz, giza barne-egitura bat sortzeko helburuagaz”*. Bestalde, Vanesa psikologoa da eta Andeetan egon da adimen urritasuna daukaten gazteakaz beharrean, *“laborterapiagaz lan egiten dute, baserri eskola baten antzekoa da, eta 50 bat ume zeuden oso atzerapen mental larriagaz”*. Vanesaren begiek honela dakusate Venezuela: *“ezin leike esan pobrezia dagoenik, baina bai eskasia. Lehenengo begira-*

tuan iruditzen zaizu bizimodu normala daramatela, baina behin hurbiletik ezagututa dena itxura da, familia aurrera ateratzeko sekulakoak pasatzen dituzte”.

Honduras GKEen esku
 Pobrezia ezagutu zuela diosku Alaitzek,
*“desnutrizinorik ez dozu ikusten, arropa
 zahar eta apurtuakaz doaz, baie, osasuna,
 hezkuntza... dana GKEek erotaten dabe,
 gobernuak eskuak garbitzen ditu”*. Hondur-
 arrak otzan eta beldurti ikusi ditu Alai-
 tzek, *“ez nuen espero, oso atseginak dira,
 baina dena GKEei eskatzen ohitu dira, eta
 gobernuari ezer ere ez, oso ‘sumisoak’ ikusi
 ditut”*. Baina, bertakoen harrerak benetan
 hunkitu zituen: *“herriak itxaroten zaitu,
 badakite helduko zarela, polita da... eta eus-
 kal berba asko dakizkite! Baina, hainbeste
 euskaldun joan gara ezen zera esaten zigut-
 en: ‘zuek ere gezurra esango diguzue, itzu-
 liko gara esango diguzue’.* ^m

(SPL) BAR ESPUELA ITURRIBIDE
 DULCIBO 08
 • PINTXO GOZO-GOZOAK
 • OSTEGUN KULTURALAK
 • ASTEBURUTAN MARTXOIA
 • TELEFONOA: 944150565
 • ITXURALDATURIK. HATOR.
 ELKARTOKIA ETA GIRO JATORRA

Lacofris, S.L. **SERVITEC**



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA

& 94 430 52 00 **Kasune, 18 • ALGORTA**

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

 T: 430

HIRURAK

Sarrikobaso 15

 **KURKUDI
LIBURUDENDA**

**Euskarazko
irakurgai**

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402



TXIBERRI
e d a n t o k i a
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTEA



URDULIZ

Teléfono: 940 761 120

krimea

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA



EUSKARA IKASTARO
BERRIAK ANTOLATU DITU
MANKOMUNITATEAK

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 3 ikastaro berri ipini ditu martxan: “Gurasoak lagunduz” (umeei etxeko lanak egiten laguntzeko), “Hasiberriak” (euskara hasiera-hasieratik ikasteko) eta “Euskal Jolasak” (umeakaz euskaraz olgatzeko). 12 urtetik beherako seme-alabak dauzkaten gurasoei eta haur-zaintzaileei zuzendutako ikastarook Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan eskainiko dira. Informazio gehiago herri bakoitzeko udaletxeetan eska daiteke.

OLENTZEROREN IPUIN
LEHIAKETA PLENTZIAN

Olentzeroren inguruko ipuin lehiaketa antolatu du Plentziako Kultur Etxeak (Goñi Portala). 7 eta 17 urte bitartekoei zuzendutako lehiaketa da, ipunek euskaraz idatzitakoak izan behar dute eta ezin dira 3 orri baino luzegoak izan. Lanak Goñi Portalean aurkeztu behar dira abenduaren 3a baino lehen.

ROMANIAKO ARGAZKIAK
HERRIKO TABERNAN

Urdulizko herriko tabernan “Gaztazka baten irudiak: Irlanda” erakusketa egon da ikusgai orain dela gutxira arte. Orain lekukoa Ander Astigarragaren “Rômania, Ekialdeko Begirada” argazki erakusketak hartuko du. Erakusketa dagoeneko ikusgai dago herriko tabernan eta abenduaren 3ra arte egongo da bertan.

BARRIKA

Barrikarrak sarean sartzeko gunea zabalik



Argazkian, Barrikako KZgunearen inaugurazio eguna

KZguneak zabaldu ditu atek azkenean Barrikan. Barrikarrak teknologia berrien eta interneten munduan barneratuko dituen doako zerbitzua martxan ipini dute dagoeneko udalak eta Eusko Jaurlaritzak. Barrikako Kzgunea Udaletxeko Bidea 2an dago, Txitxilandia eraikinean (Elordui nagusien etxearen aurrean).

Herritarren eskura 6 ordenadore daude, eta esan moduan, KZgune guztietan legez, barrikarrek doan erabil ditzakete: saretik

doan ibiltzeko, eta informatika eta internet mundura hurbiltzeko aukera itzela eskaintzen dute. Bestalde, informatikaren erabileraren inguruan bi ikastaro eskainiko dituzte KZgunean: bata, hastapen-ikastaroa (hasiberrientzat); bestea, ezagutza handitu egongo da zabalik, abenduan arratsaldez, eta horrela hilabete bakoitzeko ordutegia txandatzten joango da. m

Harremanetarako: 94 677 37 46

aldai

TAPIZTEGIA DEKORAZIOA ERAKUSKETA ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

Aza. 21- Aben. 5

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

EUSKARAREN
JARDUNALDIAK

GETXO

- **IV. Aerobic Maratoia euskaraz.** Andra Mari kiroldegia. Azaroak 21, domeka. 17:00.
- **Iturrian zer dago?.** Xuka taldearen bertso eta dantza ikuskizuna. Getxo Antzokia. Azaroak 23, martitzena. 20:30. Sarrera doan.
- **GazteJainahaste.** Afrika, Selektak eta DJ Axularren kontzertuak. Areetako Geltoki plazako karpak. Azaroak 26, barikua. 20:00. Doan.
- **Betizu.** Umeentzako ikuskizuna. Areetako Geltoki plazako karpak. Azaroak 27, zapatua. 20:00. Doan.
- **Patata, Patata.** Pirritx eta Porrotx pailazoaren umeentzako ikuskizuna. Areetako Geltoki plazako karpak. Azaroak 28, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 2 euro (Betizuko bazkideentzat 1 euro).
- **Bizkaiko Bertsolari txapelketaren II. finalaurrekoa.** Getxo Antzokia. Azaroak 28, domeka. 17:00. Sarrera: 7 euro.
- **“Habla en Cristiano” erakusketa.** Torrene kaleko erakusaretoa (BBK). Azaroak 30-abenduak 19.
- **Getxoko idazleak.** Mahaingurua. Torrene kaleko erakusaretoa (BBK). Abenduak 2, eguna. 19:00.
- **Euskaltegien arteko olimpiadak.** San Nikolas plaza. Abenduak 3, barikua. 11:00.
- **Joselu Anaia.** Erromeria. San Nikolas. Abenduak 3, barikua. 19:30.

SOPELANA

- **Triki poteoa eta bertsolariak.** Igor Elorza eta Peñagarikano. Azaroak 26, barikua. 20:00.
- **Muzzikiren bidaia harrigarria.** Umeentzako antzerkia. Kultur Aretoa. Azaroak 27, zapatua. 18:30.
- **2003 Cho-Oyura egindako espedizioa.** Juan R. Madariagaren hitzaldia. Hall Kulturala. Abenduak 1, eguaztena. 19:30.
- **Euskara sencilloaren manifestoa.** Biko Teatro. Hall Kulturala. Azaroak 30, martitzena. 19:30.
- **2003 Cho-Oyura egindako espedizioa.** Juan R. Madariagaren hitzaldia. Hall Kulturala. Abenduak 1, eguaztena. 19:30.
- **Zazpi kolore, munduko koloreak.** Jon Arretxeren hitzaldia. Hall

Asier Hormaza eta Afrika Bibang getxozarrak Jardunaldien aitaibiki eta amabitxia

► **UMORE GAUA**
Irribarreak, algarak... euskara alaitzea helburu
Loli Astoreka, Ane Gabarain, Asier Hormaza eta Aitziber Garmendiaren umorezko bakarrizketek Algortako Piper's Irish Pub-en bilduko direnak barre algaraka ipiniko dituela zalantzarik ez daukagu. Euskarari irribarre xumea eragiteko asmoa ere edukiko dute. Umore Gaura hurreratuko diren euskaldunak alaitzeaz gain, mundu guztiaren aurrean euskarak umorea badaukala erakutsi, eta denok bat eginez gero indar itzela eduki dezakeela aldarrikatu gura dute. Abenduaren 1ean ipini dute Umore Gaugaren hitzordua, baina esan barik doa, euskaragaz zita egunero daukagula.

• **Non:** Piper's Irish Pub (Algorta) • **Noiz:** Abenduak 1, 19:00.

Kulturala. Abenduak 2, eguna. 19:30.
► **Koldo Amestoy ipuin kontalaria.** Udal Euskaltegia. Abenduak 3, barikua. 10:30.
► **Urko abeslariaren kontzertua.** Urko kiroldegia. Abenduak 10, barikua. 21:00. Sarrerak Hall Kulturalan salgai.

BARRIKA

- **Alfonbra magikoa.** Oihulari-klovn taldearen antzerki eta ipuin-kontalari ikuskizuna. Herriko liburutegia. Abenduak 3, barikua. 18:00.

ERAKUSKETAK

GETXO

- **Guztion Getxo, kultura artean bizirik.** Getxotik Mundura jardunaldien barruan. Fadura. Azaroak 20-27.
- **Ortu Kritikoa.** Getxotik Mundura jardunaldien barruan. Erromoko Kultur Etxea. Azaroak 20-27.
- **Maite Bolunburu-ren olioak.** Algortako Kultur Etxea. Azaroaren 27ra arte.

PLENTZIA
► **Cristina Ellacuria-ren margoak.** Erakusketa gela. Abenduak 1-15.

LEIOA

- **Abiazioa.** Kultur Leioako erakusgelan. Urtarrilaren 14ra arte.

BERANGO

- **Tierra de Hombres GKEaren erakusketa.** Erakusketa Gela. Azaroaren 30ra arte.

URDULIZ

- **Rômania, Ekialdeko begirada.**

Ander Astigarragaren argazkiak. Urdulizko Herriko taberna. Abenduaren 3ra arte.

ANTZERKIA

LEIOA

- **Decameron.** Ados teatro. Kultur Leioaren Auditoriuma. Azaroak 26, barikua. 20:30. Sarrera: 10 euro.

- **Encarnacion.** Mercedes Farriols. Kultur Leioaren Auditoriuma. Azaroak 27, zapatua. 20:30. Sarrera: 3 euro.

ZINEMA

GETXO

- **Super Agente Cody Banks .** Haur Zinema. Getxo Antzokia. Azaroak 21, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.
- **Cuentos de la guerra Saharaui.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia, azaroak 24, eguaztena. Areetako Gran Cinema, azaroak 25, eguna. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.
- **Northfork.** Cinema Paradiso. Azpitituludun jatorrizko bertsioan. Getxotik Mundura jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Azaroak 26, barikua. 22:30. Sarrera: 2,60 euro.

PLENTZIA

- **Amar al limite.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Azaroak 26, barikua. 22:00.
- **Un paraíso en el infierno.** Gazteentzako zinema. Goñi Portala. Azaroak 27, zapatua. 18:00.

LEIOA

- **Un tipo corriente.** Perseo zineforuma. Kultur Leioaren Auditoriuma. Azaroak 23, martitzena. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 2 euro.
- **La Fuga.** Perseo zineforuma. Kultur Leioaren Auditoriuma. Azaroak 30 20:00. Sarrera: 2 euro.

namaika bide

1	Kafe Antzokia Biba
2	Kafe Antzokia Ondarra
3	Ondarra Antzokia Itas
4	Algar konpartia
5	Zaparrada Gaztegunia
6	Elgetan Umeak
7	Elgetan zerbitzu
8	Ikastaro eta talerak
9	Bakarko etxea
10	Biba Hiria Iratze 98,0 Fm
11	Zenbat Gara eldizkaria
12	Gara argitaletxea

zenbat gara eldizkaria

[albuma]



Argazkian, Mari Jose Mardaras eta Nekane Sarria



Mardaras odolosteak

San Martin eguna, eta ondorengo egunak ere, txerria hiltzeko sasoia izan da betidanik Euskal Herrian. Garaiak aldatu dira eta gero eta txarriboda gitxiago egiten dira gure baserrietan. Gaur egun txorizo eta odoloste gehienak lantegietan egiten dira. Adibide bat gurean dugu, mardarastarrek Getxon daukaten fabrika txiki eta ederra. Astero ehunka odoloste egiten dituzte betiko moduan baina teknologi berriek eskainitako erraztasun eta berme guztiekin. Argazki sorta honetan odolosteak zelan egiten dituzten erakusten saiatu gara.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Lehenengo belaunaldiko McIntosh zahar-zaharra, berogailu are zaharragoa, telebista moderno handi bat eta azken bospasei hamarkadetako liburuz betetako apalategiak. Horra Ramiro Pinilla idazle bilbotarraren langela. Umetan, Pinillak Getxon ematen zituen udak, eta orduantxe piztu zitzaion noizbait hemen bizileku finkoa edukitzeko gogo. Azkenean, etorri egin zen, baina ospearean zurrumbilotik ihesi. Izan ere, haren hasierak, idazle modura, arrakastatsuak izan ziren, hainbat sari irabaziz. Baina orain dela 30en bat urte literaturaren lehen lerrotik aldendu zen. 81 urte dauzkala itzuli da atzera, 2.500 orrialde inguruko eleberri bategaz: *Verdes valles, colinas rojas*, Pinillak azken 18 urtean zehar idatzitako liburua. Hain handia izanik, hiru liburukitan banatu da. Momentuz, lehenengoa kaleratu da: *La tierra convulsa*.

Ramiro Pinilla

Idazle baten “itzulera”

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Literaturatik sekula bizi ez zarela esan duzu, baina garai batean aukera eduki zenuen, beharbada, irabazi zenituen sariakaz...

—Tira, horrek ez du esan diru aldetik bizitzeko adina lor daitekeenik...

—Gaur egun, Planeta saria irabaztea mahuka ederra da ordea...

—Beharbada bai, baina.... Gainera, nik ez nuen Planeta irabazi; Nadal bai, eta garai hartan 150.000 pezeta ziren. Orduan bazen zeozer, baina nik etxea neukan hipotekatuta eta huraxe ordaindu behar izan nuen. Ez dut inoiz sosik eduki; ahalegin handiz egin dut aurrera, eta ez literaturari esker. Baina tira, literaturatik ez bizitzeak badauka abantaila handia: gura duzuna idatzi ahal izatea. Eta ni pozik nago neure ibilbide literarioagaz.

—Orduan, badago gura duena idatzi ezin dezakeenik...

—Noski! Literatura mundura ailegatzen den jendeak, munduko zintzotasunik handienagaz jokatuta ere, derrigorrez eman behar du amore zeozertan. Enkar guak onartuz, esaterako. Dena dela, badago nork bere buruari egiten dion ezkutuko zentsura ere. Zer salduko den, zer

ez, zerk honda dezakeen nire ibilbidea... Hori norberaren barne muinik sakonengan gertatzen da. Eta ni aske egon naiz.

—Itzuli egin zara, esan dezagun...

—Bai, urte asko eta asko igaro ostean. Nadal saria irabaziz hasi nintzen, pare bat eleberri argitaratu zidaten, Planeta sariko finalista ere izan nintzen, eta ez zitzaidan gustatu argitaratzaileek emandako tratua.

“Literaturatik ez bizitzeak abantaila bat du: gura duzuna idatzi ahal izatea”

Nire helburu nagusia lasai bizitzea denez, “kitto” esan nuen, “ez dut sufritu gura”. Liburuak neuk ordainduta argitaratzen hasi nintzen, neuk sortutako Libropueblo argitaletxearen bidez, eta hala eman nituen urte batzuk, oraingo eleberritzar hau amaituta neukala konturatu nintzen arte. “Hau beste modu batera argitaratu behar da”, pentsatu nuen. Tusquets-en onartu ninduten eta hor dago liburua.

—Hortaz, ez da benetako isilunea izan. Idazten eta argitaratzen jarraitu duzu...

—Bai, baina ez komertzialki. Nik ez diot inoiz idazteari utzi. Tarteka idatzi dut. Lan gehiago eduki nitzake kaleratuta,

baina denbora asko eman diet familiari eta etxe honi, horietan izan dira-eta niretzat garrantzitsuena.

—Horregatik eman dituzu 18 urte *Verdes valles, colinas rojas* idazten?

—Eleberria berez da luzea. Gauza bat egiten hasi eta ezin susmatu hain luzea izango denik... Nobela korapilatu egiten da, pertsonaiak agintzen hasten dira, eta

idazlea haien tresna huts bihurtzen da. Bestalde, denbora guzti honetan eleberri honegaz ibili naiz, baina ez modu iraunkorren, aldi berean eleberri labur bi idatzi ditut eta: *15 años* eta *Huesos*.

—Zertaz egiten du berba eleberriak?

—Getxo herriaz. Baina ez Getxoko benetako historiaz, beraren atmosferaz baizik, beraren baldintzez. Denok ezagutzen dugu Getxoko benetako historia gitxi gorabehera, eta nik, osagai berberakaz, beste historia bat egin dut: liburuan ageri den historia. Ikuspegi bat da, zelanbait. Norberaren pentsakera, norberak munduaz daukan ikuspegia emateko zerbait



Ramiro Pinilla, Getxoko etxean

hartu behar da oinarritzat, eta nik, oraingoan, Getxo hartu dut. Getxoko ohiturak, euskal ohiturak, mitoak... Neure mitoak asmatu ditut, noski, dagoeneko existitzen direnak alboan utzi ditut-eta. Asmatu ditudan mito horiek emaitzagaz bat egin dute. Eleberraren errealitatean ikusten denak antzinako jatorria dauka: erlijio katolikoaren etorrera, futbolaren etorrera... Jatorri horiek guztiak, nik mito bihurtu ditudanak, eleberraren gaurko errealitateara isurtzen dira. Eta errealitatearen artean ez dago desberdintasunik.

—Lasai bizi gura zenuen, argitaletxeek txarto tratatzen zintuztelakoan zeunden... Zer esan gura du horrek, zehazki?

—(Isilunea, irribarre maltzur eta guzti) Adibide bat: argitaratu zidaten lehen liburua *Las ciegas hormigas* izan zen. Egun batez esan zidaten: “Pinilla, telebistak

“Zerk egin diezaioke eraso gizakien askatasunari? Fedeak, batez ere”

liburuan oinarritutako telesaila egitea eskaini digu”. Nik ez daukat arazorik diruaz berba egiteko hala egokitzen denean. Beraz, galdetu egin nuen: “Zenbat ordaintzen dute?” “15.000 pezeta”. 1965. urtea izango zen gitxi gorabahera. “15.000 pezeta telesail batengatik? Hori iseka da”, erantzun nuen. Orduan, hurrengo aldian ez zidaten galdetu, eta

Alemania telebista-kate batek pelikula egitea eskaini zienean, niri aipatu barik egin zuten. Badago adibide gehiago... (Telefonoak jo du. RNE da, elkarrizketa baterako hitzordu eske).

—Itzulera honetan, espero zenuen komunikabideen hain arreta handia jasotzea?

—Nadal irabazi nuenean gauza bera gertatu zitzaidan. 40 urtetik gora joan dira, eta oraingo honek ez nau ikaratu. Hura, berriz, latza izan zen. Nik ez nuen uste nire nobela batek Nadal irabaz dezakeenik. Eta biluztu egin ninduten. Nik ez nuen espero, eta ez nuen gura. Txarto jardun nuen, ez nengoelako prest, nire izaera ez zen kinka hartarako egokiena. Orain bai, edozer jasaten dut.

—Idazten jarraitzeko asmorik bai? Ildo honetatik, esan gura dut...

—Bai. Badauzkat hiru eleberritxo hasita. Orain urte eta erdi amaitu nuen hau, eta uste dut oraindik sasoian nagoela idazteko. Momentuz Tusquets-en argitaratuko dut, noski. Espero dut ezer arrarorik ez gertatzea. Indarberrituta nago, orain arte kritika onak jaso ditudalako. Hala ere, nire nobelan badago kritikariek igerri ez duten elementu bat: askatasuna. Liburuaren gai nagusia askatasuna da. Zerk



GETXOKO KIROLDEGIA, 1999

Isladak

Konrado Mugertza

Irudi eder hau helarazi digu Konrado Mugertza argazkilaria.
Getxoko Andra Mari kiroldegian egin zuen orain dela bost bat urte.

Gehiago balio izatea. Esaldi horrek laburbiltzen du Erdi Aroko euskal jauntxoen –eta Europa osokoen– pentsamoldea. Filosofia horrek albokoak baino gehiago edukitzera behartzen zituen, bizitzaren arlo guztietan: lur gehiago, burniola gehiago, errota gehiago, seme-alaba gehiago... Eta horretarako, derrigorrezkoa zen, jaun haien pentsakeraren arabera behinik behin, aldamenekoa zanpatzea. Mende bi inguru iraun zuten leinu arteko borrokek eta gure eskualdean ere utzi zuten arrastorik, ikusiko dugunez.

Erdi Aro odoltsua

Leinu arteko borrokak Uribe Kostan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Oinaz eta Ganboa?

XIV. eta XV. mendeetako jauntxoek borrokez berba egitean, Oinaz eta Ganboa aipatzen dira beti. Baina ezin esan Bizkaian hala zenik. Oinaz eta Ganboa izenek Araban dute jatorria, eta Gipuzkoako leinuek ere berenganatu egin zituzten. Bizkaian, ostera, ez. Lope Gartzia de Salazarrek idatzitako kronikei esker ezagutzen ditugu garai hartako gorabeheretako asko, eta berak ez du aipatzen, Bizkaia dagokionez, ez Oinaz ez Ganboarik. Hemengo alderdi nagusiak Arabako eta Gipuzkoako oinaztar edo ganboatarrakaz lerratzen ziren borrokak herrialde arteko mugak gainditzen zituenean, bai, baina ez zituzten izen horiek hartzen.

Euskal Herria, XIV. eta XV. mendeak. Alderik alde, jauntxoek arteko borroka latzek odolez bete zuten gure lurra. Oinaz eta Ganboa, beaumontarrak eta agramondarrak... Nongura, elkarren aurka zebiltzan talde bi ageri ziren, oso argiak ez diruditen arrazoiek bultzatuta etengabeko erasoan. Bizkaian, elkarri mokoka zebiltzan Muxika-Butroe eta Abendaño leinuak ziren indartsuenak, eta gainerakoek haien inguruan egiten zuten dantza. Uribe Kostan ere bai, noski.

«Uribe Kostako familia guztiak butroetarren itzalpekoak ziren»

Gure herrietan, egia esateko, ez zen aparteko borrokaldirik izan, arrazoi sinple batengatik: bertoko familia guztiak butroetarren “lagunak” ziren (beharbada, hobe litzateke “zerbitzupekoak” esatea). Oinaztarren aldekoak, beraz, gailendu den izendapenari jaramon egiten badiogu. Hala ere, hori ez da guztiz zehatza, ezkerretara dagoen

koadrotxoan azaltzen denez.

Izenak gorabehera, Uribe Kostan baziren, esan dugunez, butroetar botere-tsuen itzalpeko zenbait familia txiki: Getxo, Asua, Martiartu, Madariaga (Plentzian)... Itxuraz, bazueden are garrantzi txikiagoko batzuk: Sopelana, Berango... Baina informazio gitxi heldu zaigu horietaz. Edozelan, ez du ematen elkarren aurkako gatazkarik eduki zutenik. Hala ere, oreka apurtzen zuen faktore bat bazegoen gurean: Plentzia.

Plentzia, dakigunez, uria da. XIV.

mendearen ere bazen, eta horrek esan gura du legedi berezia zeukala (oraindik badauka, zenbait arlotan), eta teoriak behintzat, erregearen babesarekin. Tradizioz, butroetarrek ziren nagusi Plentzian, baina apurka-apurka bertakoak euren hiriko agintea eskuratzeko ahaleginak egiten hasi ziren. Azkenik, butroetarrei oldartu zitzaizkien, armak eta guzti, XV.

Eskuinean, Martiartu dorretxea aspaldiko argazki batean >



Dorretxeak, gotorleku eta ikur

Erdi Aroko leinuen bizimodua dorretxearen inguruan zegoen antolatuta. Bizileku eta gotorleku ez eze, euren boterea adierazteko ikurra ere baziren dorretxeak. Batzuek gaur egun arte iraun dute, baina ez orduan zeukaten itxuragaz. Arsenio Dacostak dioskunetz, *“gudurik latzenak gertatu ostean –Elorrikoa, Arasatekoa...-, Gaztelako erregeek dorretxeen defentsarako elementu guztiak aurtzea agindu zuten. Hala, almenak kendu zizkieten, gaur egun daukaten baserri itxura emanez”*.



**«Dorretxea, bizileku eta gotorleku ez eze, botere
ikurra ere bazen familia haientzat»**



Argazkiotan, Otxandategi dorretxea, Getxoko armarria, Plentzia eta Butroeko gaztelua

Uribekostarrak ere gudari

Uribe Kosta borroka gitxiaren jokaleku izateak ez du esan gura bertokoek gudu ugaritan parte hartu ez zutenik. *Historia de Guecho* liburuan, esaterako, Carlos M^a Zabalak garai hartako gudurik ospetsuenetan egondako hainbat getxoztarren berri ematen digu.

Bestetik, eta Alberto Diez ikerlariak dienez, 1471ko Mungiako gudu handian borrokatu zen armadetako batek –Haroko kontearenak, hain zuen– Uribe Kosta zeharkatu zuen alderik alde, Erandotik Urdulizerraino, Butroera ailegatzeko asmoz. Horrek ez zion suerte onik eman, antza, galtzaile atera zen eta.

mende amaieran.

Butroeko jaunak errotarri bat ipini gura izan zuen Plentziako zubiaren azpian. Horrek, noski, garia han ehotera behartzen zituen plentziar guztiak, eta haiek ez zuten hori onartu. Aitzakia haregaz hasi zen gatazka; baina errotagatik ez ezik, portuagatik ere borrokatu ziren. Butroetarrentzat oso garrantzitsua zen portua menpean edukitea, horrek euren burnia itsasotik ateratzeko aukera ematen zielako. Azkenik, Gorlizen sortu behar izan zuten portu berria, Legarra izeneko inguruan hain zuzen.

**«Bereziki bortitza
izan zen Martiartu
eta Legizamonen
arteko gatazka»**

Mendekua lege

Esan dugunez, Uribe Kostan ez zen borrokaldi askorik egon. Batzuren berri jaso dugu, hala ere. Bereziki bortitzak izan ziren Martiartukoek Bilboko Legizamon familiagaz edukitako tirabirak. Gatazkaren jatorri zehatza ezezaguna dugu, baina ez, ordea, ondorioak: 1300an, legizamondarrek su eman zioten Martiartuko dorretxeari, hogei urte lehenago Kastrexanako guduan jaso zuten porrotaren ordainetan. Ondorengo 140 urteetan, familia biek behin eta berriro “erantzun” zioten elkarri, Martiarturen kasuan Getxokoen laguntzaz. Gudu gehienak, zelangura, Uribe Kostatik kanpo gertatu ziren; jeneralean, Bilbon.

Edozein aitzakia zen ona borrokarako grinari aterabidea emateko eta, ikusi daitekeenez, mendekua oinarritzko kontzeptua zen. Adibide ederra daukagu gerora Getxokoa izatera ailegatu den Martiartu leinuaren armarrarian: *Kaltea dagianak bizarra lepoan*. Hau da, eraso egiten didanak atzera begira egon beharko du aurrerantzean.

Badaezpada ere. m

GETXOKO EUSKARAREN VI. JARDUMALDIEN BARRUAN

IV. AEROBIC

MARTOTIA EUSKARAZ

17:00etatik aurrera ** GETXOKO ANDRAMARI KIROLDEGIAN
dantza afrikarra | zuzeneko Dja



AZAROAN
21
DOMIEKA

LAGUNTZAILEAK

- Getxo
- Banque Paribas
- BBK
- Coca-Cola
- Bernia
- Babesleak
- San Jose
- Nike
- Kelme
- Adidas
- Wintecor
- Alfa Romeo



GASTEIZ

Euskal Herria eta festa



Santiago Yaniz argazkilari handiak (Bilbo, 1957) *Euskal Herria eta festa* liburu eder bezain mardula plazaratu berri du Juan Antonio Urbeltzekin batera Elkar argitaletxearen eskutik. Liburuak Urbeltzen hitz jantziak eta Yanizen irudi bikainak biltzen ditu. Egileen hitzetan “euskal jaien inguruko eztabaida piztu” nahi izan dute lan honekin. Orrialdeotara eta liburuaren aurrerapen legez, Yaniz maisuaren irudi batzuk ekarri ditugu.

Argazkiak: **Santi Yaniz**



BAIONA



BIRIATU



LEKEITIO



OIARTZUN



IRUNEA



MASKARADA



LESKA



SAN JUAN GAIA

Getxoko literatur gida

GETXO • LITERATURA • EUSKARA

GETXOZTARREK EUSKARAZ IDATZITAKO LITERATUR LANAK BILTZEN DITUEN GIDA.

Oraina, balia baita leheko eta gero ere bidala amalezinean.
Idazle bakoitzak aukeratutako Getxoko toki kettusenak ezagutuko
dituzu bidala honetan. Esti Ezkerraren testuak eta Asier Mentaakaren
argazkiak izango ditugu bidai-lagun. BAZATOZ?

Laura Mintegi

Unai Elorriaga

Kepa Altonaga

Iñaki Frieria

Joseba Santxo

Amaia Iturbide

Xabi Paia

Gidaren aurkezpena
eta mahai-ingurua:

Abenduaren 2an
Arratsaldeko 7:00etan
Torrene kaleko erakusketa aretoan

Gidan agertzen diren idazleek literaturaz jardungo dute

Parto-hartzaileak: Laura Mintegi • Unai Elorriaga • Kepa Altonaga
• Xabi Paia • Joseba Santxo • Iñaki Frieria

Moderatzailea: Esti Ezkerra

GABONETAN OPARITU
GETXOKO LITERATURA

Argitaratzailea:

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO • Euskara

UK 39

zineeskola

Oskar Fernandez

Lehen plano eta prentsa arrosa

Gaur egun zinema ezagutzen dugun moduan –arte zein industria bezala–, lehen planoaren aurkikuntzarik gabe beste gauza guztiz desberdina izango litzateke. Inoiz zutabetxo honetan plano honek duen garrantzia azaldu dugu. Zinema bere lehenengo urrats desorekatuak ematen zegoenean kamera aktoreengana hurbiltzen hasi zen eta, “magiaren bidez” haien aurpegiak pantaila osoa bete zuten. Aurpegiak pantaila osoa betetzen zuen barruko sentimenduak adierazteko bidea erraztu zen, aktoreak ikusleentzat oso ezagunak izaten hasi ziren eta garai hartako musuek neurri ikaragarria hartu zuten. *Musua* izeneko filmarekin hain zuzen ere (1896, Edisonek ekoiztua) lehenengo eskandalua pantailaratu zen. Musu hark inozoa izan arren kriston liskarrak sortu zituen, batez ere, pantailan hartu zuen neurri ikaragarri handiagatik. Baina honek jendea zine-aretoetara erakartzen zuen. Eta, jakina, horrek dirua suposatzen zuen. Lehen planoaren bidez eta istorioek zeukaten amu psikologikoagatik jendea aktoreekiko lotura bereziak eta identifikazioak sortzen hasi zen. Ikusleak aktore gose ziren eta haien bizitzaz ahalik eta gehin ezagutu nahi zuten. Jakinmin hau nolabait asetzeko “zinema aldizkariak” argitaratzen hasi ziren. Berehala arrakasta itzela lortu zuten aldizkari hauek. Zinema ekoizleentzat aktoreak altxor preziatua ziren, diru iturri handia, filmen eta aldizkarien bidez dirutza lortzen baitzuten. Hortaz, gaur egun hain arrakastatsua den prentsa arrosaren sorburua hogeigarren mendearen lehenengo hamarkadetan kokatuta dago. Eta hau guztia plano bategatik. 4

Zinebi hasteko prest

Getxon ere ikusi ahal izango dira Bilboko zimenaldiko filmak

Bilboko Nazioarteko Film Laburren eta Dokumentalen Zinemaldiak 46 urte beteko ditu aurten. 46 urte film laburrei eta dokumentalei Bilboko atea zabaltzen, Bilbo zinema mundura hurreratzen. Azaroaren 29an hasi eta abenduaren 4a bitartean iraupen laburreko hamaika film, eta errealitatea azaltzen duten izaera didaktiko edo kulturalako beste hainbeste film pantailaratuko ditu Zinebik. Bizkaiko hiriburuko sei aretotan egingo dira emanaldiak: Multicines eta Ideales zine aretoak, Arte Eder museoa, Arriaga antzokia, Guggenheim museoko entzungela, eta Bilborock.

Iaz jasotako film kopuru ikaragarriak gora egin du aurten ere, iazko muga lasai asko gaindituz. 90 herrialdetako 2.311

«Zinebiko film batzuk Getxo Antzokian proiektatuko dira azaroaren 29an eta 30ean»

film jaso ditu zinemaldiak, iazko kopuruagaz alderatuta ia %19 igo da. 1.218 fikzioazko filmak dira, 650 dokumentalak, 221 animazioazkoak, eta gainontzeak esperimentalak. Alde batetik, Euskal Herriko 49 film jaso dituzte. Bestetik, Frantzia, AEB, Britainia Handia, Mexiko,



Zinebi, azaroak 29 eta abenduak 4 bitartean, Bilbon

Argentina, Peru, Txile, Kuba, Txina, Japon, Korea, Indonesia, Malasia, Thailandia, Vietnam... eta beste herrialde askotatik heldu dira filmak.

Amaitzeko, film horietatik guztietatik batzuk Getxo Antzokian ere ikusi ahal izango dira, azaroaren 29an eta 30ean, 20:00etan. m

Informazio gehiago: www.zinebi.com

Ez galdu > “Zatoichi”

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** abenduak 3, barikua • **Ordua:** 19:30 • **Zinema** Paradiso



Takeshi Kitano zuzendari japoniarra oso ospetsua da mendealdean. Berak zuzendu eta interpretatu dituen azken filmak ere *–Hana-bi*, *Kikujiroren uda*, *Anaia* eta *Panpinak* beste– oso arrakastatsuak izan dira. Oraingo honetan Kan Shimozawa idazleak sortutako heroi ospetsu batean, *–Zatoichi–*, oinarritzen da Kitano istorio interesgarria garatzeko. Veneziako Nazioarteko Zinemaldian (2003) zuzendari onenaren saria lortu zuen Kitanok film honekin. Pelikulak ere film onenaren saria eskuratu zuen Sitgeseko Zinemaldian (2003). Kitanok askotan egin duen moduan filma zuzentzeaz gain pertsonaia garrantzitsuen papera ere egin du. Hau gutxi balitz, gidoia berak idatzi du eta ,gainera, muntaketan ere hartu du parte. *Filmak* Japoniako XIX. mendera eramaten gaitu. Zatoichi eskale itsua bezala eza-gutuko dugu, bere bizitza ahal duen moduan aurrera ateratzen duena, baina gero bere barrutik beste nortasun erabat desberdina azaleratuko da.

Udagoieneko ostera

Topaguneak prestatutako kultur programazioak musikaz beteko du **Getxo azaroaren 26an**



Afrika, DJ Axular, eta Selektah Sound Systemek eskainiko dituzte kontzertuak

Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioak antolatzen duen “Udagoieneko Ostera” kultur programazioa, abiatu da dagoeneko. Orain dela 5 urte sortutako ekimen horrek Bizkaian kulturaren bitartez euskara sustatzea dauka helburu, eta hori erdiesteko Topaguneak hamaika ekitaldi prestatu ditu Bizkaiko areto ezaguneetan: Guggenheim, Arriaga, Serantes Kultur Etxea (Santurtzi), Plateruena Kafe Antzokia (Durango), Liceo Antzokia (Gernika), Arriola aretoa (Elorrio), Udal Ateneoa (Balmaseda)... eta Getxora ere egin-

go du ostera Topaguneak azaroaren 26an, bari-kua. Areetako karpapean egingo den ekitaldian musika da jaun eta jabe, baina break dantza ikusteko aukera ere egongo da. Gazte-JAInahaste goiburupean musikak, dantzak eta perkusioak bat egingo dute; Afrikak usika beltzan murgiduko du gaua, Selektah Sound Systemen erritmora egingo dute dantzan Intxaurbreak taldeako kideek eta DJ Axularrek perkusioaren koloreakaz margoztuko du Areetako karpa. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarrera doan da. m

diskoak

Lau anaiak
Alboka
Elkar



Joxan Goikoetxea hernaniarra eta Alan Griffin irlandarrak Alboka taldearen diskorik barnerakoiena grabatu dute, herri musikaren kantutegia aberastuko duena. Gaur egungo folk bikaina biltzen du, eta doinu zein xehetasun erritmikoetan aberatsa da. Hamar urte bete ditu aurten Albokak, eta haxe dugu taldearen laugarren diskoa, Suso Saiz-ek ekoiztu duena.

Hot Fuss
The Killers
Universal



Badira zutik jaio diren taldeak. Berba derrak jaso ditu Las Vegas-eko basamortuan sortu zen laukote honek, baita bere lehenengo diskoak ere: The Strokes berriak direla, hementxe dagoela rockaren etorkizuna... Egia da The Killers taldekoek irudi ona, sintetizadore eragin-garri bat eta sekulako abestiak (batez ere, lehenengo seiak) dauzkatela. Buruan bueltaka dabilztan horietako kantak dira.

American idiot
Green Day
Warner



Green Day opera-punk bategaz datorkigu. Dookie, bere disko onenaren espiritua berreskuratzeko ahalegina ete da? Gainera, hirukote kaliforniarra koskortu egin da, gurasoak direla eta hanburgesetan baka-rik ez dutela pentsatzen erakutsi gura du; Bush-en aurka ere badaude. Opera-punk honek ia 10 minutuko kanta bi dauzka; gainerakoa, ustekaberrako leku gutxi uzten duen pop-rocka da.

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Egunerokoa (xxvii)
Gau bakar bat

Ricok eta Ricak ez dute neguko hotzari zein udako bero zapari aurre egiten lagunduko dien aterperik. Rico eta Rica kalean bizi dira urteko 365 egunetan. Rico zapata-garbitzailea da, edo, behintzat, horretan ahalegintzen da. Baina oinezkoak gutxitan gelditzen dira bere postutxoaren aurrean. Ricak egin, ez du ezer berezirik egiten. Haurdun dagoela jakin badakigu, baina ez galdetu nor den barruan daraman umearen aita, ezta nola iritsi den egoera honetara. Kalean bizitzera, alegia.

Gaurkoak euren bizitzetako arratsalde arrunt bat izan behar zuen, baina zerbaitek urduri jarri ditu Rico eta Rica. Denda bateko erakusleihoko irrati batean esan dutenez, norbaitek botoi gorria sakatu du. Bihar goizerako, akabo, fini mundua. Gaurkoa dute azken gaua. Azken gaua. Hamabi ordu mundua, bizitza agurtzeko. Zer egingo genuke geuk egoera berean? Zertan aprobetxatuko genuke azken gaua? Ricok eta Ricak ere ez dute oso argi. Are gutxiago margolariak, kartzelan dagoen haren alabak, kartzelako zaindariak, azken horren senarra den kazetariak. Ixiar Rozasek argitaratu berri duen “Gau bakar bat” antzezlaneko pertsonaiak ditugu guztiak. Pertsonaia galduak. Noraezaren zurrunbiloak irentsitako pertsonaiak. Dena galdu duenaren moduko ziurtasunarekin mintzo diren pertsonaiak. Mundu honen funtsgabetasunaz, krudeltasunaz, axolagabekeriak ari zaizkigun pertsonaiak. Beren azken gauean. Gau bakar bat. Ez mezu apokaliptikorik bilatu testuan. Inguruan dugunari zuzenduriko soa da liburua, beste barik. 4

Getxoko literatur gida


Herriko idazleek **euskaraz idatzitako lanak** biltzen dituen gida aurkeztuko da abenduaren 2an

Helburu nagusi bi ditu Getxoko Euskara Zerbitzuaren ekimenez argia ikusiko duen literatur gida honek: batetik, gurean bizi diren idazleak eta euren lanak ezagutzera ematea; bestetik, euskarazko literaturzaletasuna bera ere sustatzea. Ekimen hau Euskara Biziberritzeko Planaren barruan dago. Plan honek irakurzaletasuna bultzatzea ere badu helburu eta jarraipena izan gura duen ekimenaren lehen pausua baino ez da literatur gida.

Lan hau osatzearen ardura Esti Ezkerra kazetari eta literaturan adituarena izan da. Berak gaur egun Getxon bizi diren euskarazko zazpi idazleen berri jaso

«Idazleen eta euren lanen berri ematea, eta literaturzaletasuna zabaltzea dira gidaren helburuak»

du: Laura Mintegi, Unai Elorriaga, Kepa Altonaga, Iñaki Frieria, Joseba Santxo, Amaia Iturbide eta Xabier Paia. Idazle bakoitzaren biografia laburra, bibliografia eta idazle bakoitzak erantzundako galde-tegi laburrak aurkituko ditu irakurleak liburuxka honetan. Zazpi idazle hauen berri ez eze hil diren beste hiru idazleena ere ematen du Ezkerrak: Federico Krut-



Gidaren kartela

wig, Markos Olabarri eta Tellagorri.

Esan bezala, liburua abenduren 2an Torrene kaleko erakusketa aretoan aurkeztuko da. Han liburuan azaltzen diren egileak literaturaz jardungo dute mahai inguruan. Idazleekin berba egiteko aukera ere egongo da.

Gida hantxe, aurkezpen egunean, eskuragarri egongo da. Herriko kultur etxe zein liburutegietan ere eskatu ahal izango da. UK aldizkariko harpidedun guztiek etxean jasoko dute. m

liburuak



Atxiki sekretua
Patxi Zubizarreta
Elkar

Graziana sorginak bere bizitza luzeko sekretuak kontatzen dizkigu luze, zabal eta modu atseginean, baina beste inori ez kontatzeko esanez. Ipuinak, abestiak, edabeak, kontakizun harrigarriak... Liburuari darion edertasuna Elena Odriozola marrazkigileari ere zor diogu.



Ipuin izugarriak
Batzuen artean
Elkar

Zergatik izugarriak? Onak izateaz gain, izua edo dardararen bat sorrarazten dutelako. Begoña Bilbao, Harkaitz Cano, Luis Fernandez, Julen Gabiria, Ana Isabel Morales, Txiliku eta Zorion Zamakola dira bilduma hau osatzen duten zazpi ipuinen egileak. Lan gehienak joan den hamarkadan kaleratu zituzten.

I. Kongresua >

Euskarazko kazeritza

Orain arteko, gaur egungo eta **etorkizuneko** euskarazko kazetaritzaren **erronkak** aztertu dituzte **200 bat lagunek**

Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua hartu du Euskalduna jauregiak azaroaren hasieran. Euskal kazetaritzaren iraganari begiratu diote, gaurko egoera aztertu dute, eta etorkizuneko erronkak igarten eta zehazten ahalegindu dira kazetaritzako profesionalak eta ikasleak. Guztira 200 bat lagunek parte hartu dute eta antolaitzeek azaldu lege, partaidetza aurreikuspenak gainditu ditu I. Kongresu honek.

«Etorkizunari begira, gakoa elkarlana dela adierazi dute»

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), Euskal Idazleen Elkarteak (EIE), Topagunea euskara elkarteen federazioak eta Berriak antolatutako kongresua azaroaren 9tik 12ra bitartean burutu da. Denetara 25 ponentzia, 20 komunikazio eta 2 mahaingurutan aztertu dituzte euskal kazetaritzaren magalean dihardutenek euskal komunikabideen iragana, oraina eta etorkizuna. Hala, datu eta gogoeta interesgariak plazaratu dituzte aditu, hizlari, zein partehartzaileek. Horra hor, euskal kazetaritzaren sektorearen errealtatea argitzeko asmotan EHUko hainbat ira-



Kongresuan 200 bat lagunek parte hartu dute

kaslek aurkeztutako txostena. Txosten horretatik hurrengo datuak ondoriozta daitezke: orain dela 30 urte inguru euskarazko hedabideak 6 ziren, gaur egun ia 250 dira, eta momentu honetan kazetari euskaldunak 700 bat dira. Hizlarien esanetan, “baikor” izateko datuak ei dira.

Bestalde, etorkizunari begiratzeko aukera ere egon da Euskalduna jauregian. Iraganeko egoeraz hausnartu ostean, gaurko gabezia eta ahuleziak kontuan hartuta, etorkizunean elkarlanaren beharra dagoela igarri dute. m

Urteurrenak >

Egunkari digitalak

Eskualdeko bi egunkari digitalek urteurrena bete dute hilaren hasieran. UKberrik urtea bete du eta UKdigitalak 3 urte daramatza sarean. 2001eko azaroaren 7an sareratu zen lehengo bider UKdigitala, eta 2003ko azaroaren 8an aurkeztu zuen bere burua UKberrik. Uribe Kostako gure eskualdean gertatutakoen berri eskaintzen duten egunkari digitalak dira biak, iritziak eta agendari ere eskaintako tarreak badituzte. UKberrik euskara hutsean eskaintzen du informazioa, eta UKdigitalak, oster, ia guztia gaztelaniaz. Beste barik, etorkizunean lanari gogor ekingo diote egunero hurbileko informazio Uribe Kostako denoi eskaintzeko asmoagaz.

www.ukberri.net
www.ukdigitala.com



aldizkaria etxean
jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba
Ametzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48930 Getxo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

01 SOPELNET s.l.

Jokoak sarean •
Txapelketak • Internet
• Txat • E-mail •

ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknika
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax:94

irabazi UKrekin

deitzen dutenen artean
masaje bat

zozketatuko dugu

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x
Tendinitis
x
Esgintzeak
x
Bizkarreko
mina

Mendieta 2, SOPELA 617 67
45 36

**deitu
eta
irabazi**

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

[sarean]

Haur kantak eMule-n

Antzinako 47 **euskal haur kanta**
musutruk lor daitezke **interneten**

Haurtzaroko abestiak ostabere entzuten ditugunean hunkitzen gara. Burura datozkigu iraganera garamatzaten mila usain eta zapore. Internet txikitan entzuten genituen grabaketak birjasotzeko balio du, euskaldun baten lanari eta Emule programari esker.

«eMule programagaz era guztietako artxihoak elkartrukutzen dira»

Orain dela 30 urte modu artesanalean grabatu, eta eskuz margotutako disko bat *–Poxpolin–* oso ospetsu egin zen irakaskuntzaren munduan. Gaur egun, disko hori digitalizatu (kasete zaharretik ordenadorera pasatu), MP3 bihurtu eta Emule sare barruan ipini du erabiltzaile talde batek, bertatik edonork eskura dezan. Horretarako nahikoa da Emule barruan “poxpolin” bilatzea.

Emule programari esker milaka lagunek era guztietako artxihoak (musika, filmak, ordenadore programak...) elkartrukutzen dituzte. Legez kanpokoa al da eMule? Bada, elkartrukutzen denaren arabera. Abesti guztiak, adibidez, ez daude copyright-az babesturik. Kasu hauetan gaxa da jatorrizko grabaketak egin zituztenek inolako trabarik ipini ahal izatea.

Beraz, ongietorria izan dadila teknologia hau, haurtzarora berreskuratzeko bada behintzat! ^m



webgida

ESTATU BATU
ERREPUBLIKARRAK
<http://www.escolar.net/MT/archivos/001583.html>

AEBetan bizi zarela eta demokrata bozkatu duzula? Beldurtzen zaitu Bush jauna Etxe Zurian lau urte gehiago izango dugula pentsatzeak? Lasai, ez duzu zertan Kanadara emigratu behar, bada beste irtenbide bat: Estatu Batu Errepublikarrak eta Estatu Batu Demokratak sortzea. Sezesio gudak lortu ez zuena, mende eta erdi ostean egin daiteke. Benetan dibertigarria.

GAZTEENTZAKO
>www.matraka.info

Gazteentzako prentsa gehigarri berria plazaratu du Berria egunkariak: Matraka. Aldi berean interneten webgunea ere ipini dute. Den-dena, euskara hutsean, jakina.

Sarean aurkitu ditugu >



Javier Otxoa > txirrindularia

“Jendeak kontrakoa pentsatu arren, ez da erraza izan urrezko domina irabaztea”



Zorrotzan egon ginen Javier Otxoagaz

Berriro hizpide da Javier Otxoa berangoztarra. Atenasko Paraolimpiar Jokoetan lortutako domina biak saritzeko omenaldia egin diote jaioterrian. Otxoa ez da dagoeneko Berangon bizi, Bilboko Zorrotza auzoan baizik, eta hantxe egon gara beragaz, orainaz eta etorkizunaz berba egiten. 30 urte dauzkala, sasoiak ikusten du bere burua, eta hurrengo Paralimpikoar Jokoetara ez ezik, 2012koetara ere joan gura du.

—Dominak Atenasen, omenaldia Berangon... Bolada ona, ezta?

—Bai, pozik egoteko arrazoiak dauzkatz. Dominaren bat eskuratzeko ilusioz gainezka joan nintzen Paraolimpiar Jokoetara, eta parte hartu dudana lau probetatik, bitan irabazi dut domina, bata urrezkoa eta bestea zilarrezkoa. Oso pozik nago.

—Eta laster, beste sari bat...

—Bai. Abenduan, Euskalduna Jauregian izango da, urteko kirolaririk onenei ematen zaizkien sari banaketan. Egia esan, pozik

egon behar dut lortutako emaitzak ikusita.

—Zer sentitzen duzu jazo zaizun guztia jazo ostean herrian omenaldia egiten dizutenean?

—Harrotasun handia. Urte askoan bizi izan naiz han, eta pozgarria izan zen omenaldi egunean betidanik neugaz jolastu diren lagunak ikustea, neugaz txirrindulaz ibiltzen hasi zirenak...

—Eta zerk ematen dizu poz handiagoa, Paraolimpiar Jokoetan domina irabazteak ala Tourreko etapan garaile izateak? El-

karregaz konparatu badaitezke...

—Ez, ezin daitezke konparatu. Tourra, noski, oso garrantzitsua da, baina Paraolimpiar Jokoetan ere arerioak oso onak izan dira eta, jendeak kontrakoa pentsatu arren, ez da erraza izan urrezko domina irabaztea. Azken momentura arte ezin izan nuen domina segurutzat jo.

—Zelan egiten dituzu orain entrenamenduak?

—Paralimpiar Jokoen prestakuntza egiteko, esate baterako, leku askotan ibili naiz, hara eta hona: Malaga, Sierra Nevada, Valentzia,

«Lagunduta joaten naiz entrenatzera, beldur ematen didalako bakarrik joateak»

Bartzelona... Ez dut profesionala nintzenean bezainbat egiten, jakina. Jokoetan, esaterako, fondo lasterketak 26 kilometro zeuzkan, beraz ez ditut egin behar lehen egiten nituen legez, lauzpabost ordu bizikleta gainean. Orain, bizpahiru ordu egiten nahikoa daukat.

—Elkarriketa hasi aurretik esan diguzunez, apur bat nekatuta zaude oraingo zurrunbiloaz, atsedean hartzeko gogoz...

—Hala da. Apur bat lasaitzeko gogo daukat, ea hau guztia pasatzen den.

—Kazetariok, batez ere, ez diguzu bakerik eman azken boladatxoan...

—Jokoetara joan nintzenan, telebista asko etorri zitzaizkidan: japoniarra, suitzarra, holandarra... Paraolimpiar Jokoetan parte hartzeak zertarako balio zidan galdetu zidaten. Kirol bat egiteko, erantzun nien. Txirrindularitza oso maite dudana lanbidea da. Hori bai, oraindik beldur naiz, eta lagunduta joan behar dut entrenatzera. Aita doakit atzetik, autoarekin. Gainera, orientazio arazoak dauzkatz eta galdu egin naiteke. ^m

I
Iñaki
Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345
Algorta

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONUZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARYK!

GIZONENTZAKO
MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

María

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

Esakere > “Horrek deko ekiñe”



Batzuk gitxi eta beste batzuk sobran,
holan dau dana banatute mundun.
Inerragaz eta animuez bere beste
horrenbeste deku: batzuk eguneroko
beharak eta ardurek akabateko, gitxi
ixenta bere, heldu eziñik ibiten gara, eta
beste batzuk ostera beharrik gogorrena
egin eta ondiño jota yantzan egiteko lez
dauke inderra, animu, edo "korreé" gure
eskualdeko herri batzuten esaten dan
lez, eta guk adi lotu besterik ezin egin,
behiek ondko landan gora ta behera
dabiltezen futbolistari adi lotzen diren
lez, pentsaten... *hórek bai daukela ekñile!*

Esakeratxu hau I. Gilisastik baturiko da, eta "Urdulizeko Berba lapikokoa" liburun topako dozue.

Gureberbakere4 9

ESAKERA ZAHAR BATZUK

Azkuak baturiko esakerakaz gatoz gaur. Bizkaiko paraje duztiten bai eta Euskal Herri onson ondo ezagune da *Arratiako zekorra*, *txikia baia gogorra* esakere, ibar horretako zekorran ganera zeozer diñoskuna, bai, baia Arratiko jenten ganera berba egikera erabilten dana. Arratin ganerako esakera hau danok dakigu, baia badagoz beste batzuk, hain ezagunek ez direnak, eta beste leku batzun ganera zeozer diñoskuenak (Txorierriko jententzako argi lotu daitela zutabetxu honen idazlek esakerak hemen imini baiño ez dauzela egin, berak ezer bere sortu barik):

- *Arrietan ura bere diruetan* (Ereño).
- *Asua ta Erandio, Sondika ta Loiu, arto asko erein ta gitxi koiu.*
- *Bakio, aparta akio, al baakio* (Txorierri).
- *Galdakao, indarra daukak eta geldirik ao* (Bedia). Bediako umek esaten ei eutsen hau bertako eskolara etozen Galdakoztarrari.
- *Gorbeiako beleak Gorbeiaara yokerea* (Berriz).
- *Lekitto, barreak itto* (Lekeitio).
- *Ondarruu, erri beruu!* (Lekeitio).
- *Zamudio berretxiko erria, Lezama zorri-erria eta Derio tximintx-erria* (Derio).
- *Zornotza, ango jenteen zor otza!* (Zornotzarrak lar eskuzabalak ez direla).

Goien esan dogun lez, herri batzuteko jentek ezin leiz lar pozik egon euren herrin ganera sortu direzen esakerakaz, baia seguru beste esakera honekaz danok ados gagozela:

- *Herri txarrena, adiskiderik eztena* (Elissanburu)



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Penkak

boletuz beteak Idiazabal saltsan

Lehenengo, salta prestatuko dugu. Zartaginean gurina ipini su baxuan eta porrua gehitu *bromouse* erara zatiturik. Sutan eduki porrua egin arte. Gero, Idiazabal gaztaia (birrinduta edo zati txikitan) gustura gehitu eta eragin. Koñak apur bategaz flanbeatu, ondoren, esnegain edo esne apur bat bota eta salta loditu arte ondo eragin. Bestetik, boletusak laminetan zatitu eta zartaginetik pasatu. Eureka penkak bete, albardatu eta frijitu. Aurkezteko, salta plater handi batean ipini, gainean penkak eta hauen gainean zartaginetatik pasatutako boletus lamina batzuk ipini. On egin! m



osagaiak
porrua • gurina • Idiazabal gaztaia
koñak • esnegaina • penka • boletusak



itsaso arana / jolastoki-koa

Ardo

ekologikoa

Ardo hau egiteko ezin da antioxidanterik erabili, ezta anhidrido sulforosorik. Teknika fisiko batzuk ere bazterzen dira, esaterako, filtrazioa murrizten da. Jancis Robinson adituaren arabera, debeku hauetako batzuk ez dute oinarri zientifiko handirik. Adibidez, ardo ekologikoetan, azidifikaziorako, ez da onartzen azido tartariko erabiltzea. Honen ordez limoi zukua erabiltzen da, beti ere bio bada, baina ardoan azido tartarakikoa da nagusi, ez zitrikoa.

Ardo ekologikoa antzinako teknikak erabiliz egiten da, aditibo eta antioxidanteak ezagutzen ez ziren garaiko teknikez. Horregatik, bere ezaugarri biologikoa ez da gauza berria. 70eko hamarkadatik aurrera, gero eta mahasgile gehiago itzultzen ari da metodo zaharretara, bai arrazoi ekologikoengatik, bai komertzialengatik.

Ardo hauen kalitatea ez da bitarteko fisikoa erabiliz egiten direnena baino hobea. Batzuetan, oxidazio nazkagarria izaten dute, nahiz eta azken uztakoak izan. Izan ere, euren fruitu ezaugarri gehienak galtzen dituzte oso antioxidante gutxi dute eta. m



Keba's Lon

Algortako arabiar txoko berria



Juan Carlos Torral-ek eta Nargis Almanzor-ek *Euskal Kebab* enpresa sortu dute jatetxea kudeatzeko. Argazkian, Nargis Almanzor eta Hanane R'abati.

Irailaren 11n ireki zuten Kebab's Lon ("qué vasilón" ahozkatu daiteke), Getxon. Herriko jatetxe arabaiar bakarra da, "eta baliteke eskualde osoan bakarra ere izatea", Juan Carlos Torral bilbotarrak eta Nargis Almanzor erdi marokoarrak erdi marbellarrak. esan legez Arrakasta handia izan du lehenengo egunetik: "Ustekabea izan da. Ez dugu asko itxaron jatetxea zelan dabilen ikus-teko. Eskaerari enantzan ezinik gabiltza", azaldu digu Nargis-ek.

Kebab-a (Ekialde Hurbileko janari tipikoa) dugu etxeko berezitasuna: arkume okela azenarioz, urazaz, tomatez, tipulaz eta tahina-z (salta zuria) lagunduta. Kebab arrunta 4.20 euroan dago, "baina prezioa bezeroaren gustuen arabera aldagarria da,

platerean edo pitazko ogiaren barruan ateratzen bada...". Horrez gain, mendafinagaz egiten den tea, Marokoko gozokiak, oliba minak, falafel-a (garbantuzko haragibolak) eta pintxo morunoak ere prestatzen dituzte.

Laster eskaintza handituko dute, eta cus-cus, itsaski eta oilasko enpanadillak, eta berenjena zein azenario entsaladak ematen hasiko dira. Kebab's Lon jatetxea (taberna ere bada) goizeko 11etatik gaueko 12etara bitartean zabalik dago, domekatik eguenera; barikuetan eta zapatuetan, berri, ordu batean zarratzen dute. m

KEBAB'S LON
Basagoiti 93, Algorta
Telefonoa: 94 403 41 29

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nornberaren gus-tura
- Egunero karta berezia
- Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezi, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua
Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikabasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS
JATETXEA

Menu merke eta askotarikoak
Espezialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA t	OTSOA t	ADARRA t
(Abenduak 21 urtarrilak 19) Bikotekidea eduki zein ez, zure bizitza sexualak indar handia hartuko du egun hauetan. Jendeak zuregana joko du beren sekretuak gorde ditzazun. Zuhurra izan zaitez.	(Urtarrilak 20 otsailak 18) Ez fidatu besteek esandakoaz, maite duzun norbaiten aurka jartzen saiatuko dira-eta. Kontuz presagaz, lasai ibiltzea komeni zaizu. Denbora badaukazu, etxea txukundu.	(Otsailak 19 martxoak 20) Lan arloan aldaketak datoz. Lasai, inguru berrian ondo sentituko zara, eta pertsona berezi bat ezagutu dezakezu. Maitasun harreman bat hasteko aukera izango duzu.
AITZURRA t	HOSTOA t	EGUZKIA t
(Martxoak 21 apirilak 19) Lehen egindako ahaleginei esker, beharlean hobekuntzak izango dituzu. Saiatu erne eta adi egoten, bestela lapurretaren bat egingo dizute.	(Apirilak 20 maiatzak 19) Jeneralean agintzea gustatzen zaizun arren, hamabostaldi honetan besteek esandakoa egingo duzu. Lan aldaketa bat dela-eta, zure aisialdia alde batera utzi beharko duzu.	(Maiatzak 20 ekainak 18) Nahiko aspertuta egongo zara egun hauetan. Hori dela eta, akatsak egitera hel zaitezke. Kontuz ibili. Lagunakaz daukazu harremanak poz handia emango dizu.
GARIA t	LASTOA t	IRATZEA t
(Ekainak 19 uztailak 18) Buruan bueltaka darabilzun ideia horiek gauzatzen hasteko ordua da, baina kontuz, dirua erraz xahutzeko joera daukazu eta horrek benetako gastuei aurre egiteko arazoak sortuko dizkizu.	(Uztailak 19 abuztuak 17) Jendearengandik jasotako kritikak ondo hartzen ikasi behar duzu; arrazoia dutela ikus dezakezu. Krisialdi bat pasatzen dabilen norbaiti lagundu beharko diozu.	(Abuztuak 18 irailak 16) Lagun batek arazoak dauzka, eta zuregana joko du laguntza eske; ez bizkarrik eman. Etxeko dekorazioan aldaketak egingo dituzu. Bikotekideagaz haserrealdiak egon daitezke, jelsiak jota dago eta.
META t	HAZIA t	NEGUA t
(Irailak 17 urriak 16) Familiakoak arazoak izango dituzu, baina lasai hartu. Gauzak lortzeko daukazu indarragatik besteek seguru ikusten zaituzte, eta zuregana joko dute aholku eske.	(Urriak 17 azaroak 15) Zu zeu izan beti, besteek gura dutena egiten ahalegindu barik. Horrela hobeto sentituko zara zeure buruagaz. Gauzak sortzeko gogoagaz egongo zara. Zozketetan zortea zure alde izango duzu.	(Azaroak 16 abenduak 20) Nahiko triste sentituko zara egun hauetan; lasai egon, eta pertsona baikorrez inguratzen saia zaitez. Horrela errazagoa egingo zaizu pozik egotea. Bikotekideagaz oso ondo sentituko zara.

mungia

oKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.


Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik



Ezker eskuin

1. Mintzaidea, berbalaguna. 2. Arbasoa. Noka, naiz. 3. Ez du ikusten. Alokairua, alogera. 4. Gogorrak. Atzizkia. 5. Sumendiaren ahoa. Potasioa. 6. Kanpo. Ukapena. Bizkaieraz, omen. 7. Seta. Izaki txiki bakun, hainbat eritasunen sortzaile. 8. Bokala. Lehen bokala. Baldintza partikula. Ardi, hitz elkarketan. 9. Nekatu, unatu. Kasik. 10. Baserritarrak ez direnak.

Goitik behera

1. Sailkapenaren arabera ordenatuak. 2. Eguzki-tarte. Dago. 3. Lasto, hitz elkarketan. Posta adierazten duen ingeles hitza. 4. Agorrila. Suari dario. 5. Atzizki femeninoa. Euskaraz eta kito!. Bi ken bat. 6. Potasioa. Akrobaziak egiten dituen. 7. ... egina, total egina. Italiako telebista. H2O. 8. Du. Egiptoko jainko. Röntgen. 9. Europako diru. Zeruko ura. 10. Anarkoak.

Soluzioak									
K	A	L	E	T	A	R	R	A	K
A	D	I	K	A	T	U	I	A	V
T	A	R	T	B	A	B	A	V	U
S	U	R	I	B	I	W	A	T	E
I	E	A	O	K	U	T	A	V	A
K	A	R	A	T	E	R	A	K	R
H	O	K	K	Z	A	K	T	L	V
V	R	U	K	A	U	S	I	T	I
N	V	N	A	B	A	S	V	A	S
E	A	I	D	S	K	L	A	S	O

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkaria



Nor da?

- Buruzagi politikoa
- Bere herriaren alde eman du bizitza osoa borrokan
- Israelek bere jomugan izan du beti

> Aurrekoaren erantzuna: Joane Somarriba
> Irabazlea: **Asier Karrantza (Getxo)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37


Zuri Haitz
Jatetxe begetarianoa



Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzenon artean bi lagunentzako menua zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...



Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



Bittor Egurrola

Arenas Club, 1929-30

Jakina denez Arenas Club futbol taldearen historia itzela da. Bere kirol ibilbidean lortutako zer guztiak aipatzea luzeegia litzateke. Zazpi denboraldi egin zituen futbol ligako lehenengo mailan 1928tik 1935era bitartean. 1929-30 denboraldian (Athletic-ek irabazi zuena) oso ondo ibili zen Arenas eta hirugarren sailkatu zen. Hona hemen denboraldi hartako sailkapen osoa: 1. Athletic, 2. Bartzelona, 3. Arenas, 4. Español, 5. Madril, 6. Irun, 7. Errela, 8. Racing, 9. Europa eta 10. Atletico de Madrid.

1935-36 denboraldian bigarren mailan eman zuen Arenasek, lehen mailara itzultzeko zorian egon zen baina azken partida Murtziaren aurka galdu ostean agur esan zion behin betiko lehehengo mailan jokatzeari. m

Atzelariak: Llantada eta Arrieta. / **Erdilariak:** Laña, Urresti eta Emery. / **Aurrelariak:** Anduiza, Saro, Gurrutxaga, Mentxaka eta Etxebarria. / **Atezaina:** Jauregi.

[aitormenak]

ALMUDENA CID > gimnasta

“Izugari gustatuko litzaidake hegan egitea”

Testua: Jon Urresti



Defini ezazu zeure burua berba bitan. Saiatua eta borrokalaria.
Zein animaliagaz zatoz bat?
Nire ogibidean, lehoinabarragaz (panteragaz); hortik kanpo, koalagaz.
Zein liburu gustatuko litzazuke idaztea? Nire bizitzarena.
Eta zein pertsonaia antzektuko zenuke film batean?
Gotham City-ko katu-heroia: *Catwoman*.
Historiako zein pertsona miresten duzu gehien? Gandhi.
Zure jakirik gogokoena.
Oro har, pasta, paella eta patata gustatzen zaizkit; batez ere, patata zimurtuak Kanarietako “mojo” saltsagaz.
Aitortu dezakezun bizio bat. Txokolate zuria.
Oporretan joateko lekurik aproposena.
Itsasoa eta mendia dauzkan edozein leku, baina nagoen tokitik urruti.
Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Zintzotasun falta.
Zer janzten duzu lo egiteko? Pijamatxo oso... motza.
Ezin zaitezke bizi... Momentu honetan... sakelako telefono barik!
Zer gordetzen duzu sakeletan? Poltsa eroaten saiatzen naiz.
Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.
Lisaburdin-lehorgailua. Bi baten prezioan! Erosketa ona.
Zer berri gustatuko litzazuke entzutea albistegi batean?
Mundua ondo dagoela: gerra barik, gaixotasun barik, ezbehar barik, zoritxar barik...
Ohitura txarren bat... Tapizera eskuineko oinagaz sartzea.
...Eta sineskeriaren bat. Ez naiz superstiziosoa.
Zertan gustatuko litzazuke haragitzea?
Hegazti hegalaria batean. Izugarri gustatuko litzaidake hegan egitea.
Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?
Atenas 2004! Gauzatuta dagoenez, beste baten bila noa: datorren urtean Almerian egingo diren Mediterraneoko Jokoak.
Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?
Abuztuaren 27an, Atenasen, final olinpikoan nengoela jakin nuenean. Lau urtez hori desiatzen egon nintzen.
Zure azken erokeria. Oporretara joateko plana egin ostean, ez joatea! m

LABURREAN— Atenasko Olinpiar Jokoetan bere lehenengo diploma olinpikoa eskuratu zuen, zortzigarren postua merezi-mendu osoz lortu ostean : “Zortzia zortearen zenbakia dut”, dio Aludena Cid-ek (Gasteiz, 1980). Hori gutxi balitz, hiru Olinpiadetako finaletan egon den historiako lehendabiziko gimnasta bihurtu zen 24 urtegaz. Zazpi zeuzkala hasi zen gimnasia erritmikoa egiten. Pilota da gogoko duen espezialitatea, eta Oksana Kostina errusiarra gehien miresten duen gimnasta: “*Oso estilo pertsonala zeukan, eta oso desberdina gaur egungo errusiarraz alderatuta*”. Bartzelonan bizi den Aludena bost aldiz izan da Espainiako txapeldun. Zortzi ordu inguru entrenatzen du egunero, goizez zein arratsalde, astelehenetik zapa-tura, ia atseden barik. Bere ustetan, kirola izateaz gain, gimnasia artea ere bada: “*Sentitzen duzuna berba barik adierazteko aukera ematen dizu*”. Ikusleen beroa ere sentitzea gustuko du: “*Askotan jendeak hunkiarazi egin nau. Eman didaten laguntza ahaztezina da*”.

udagoieneko

ostera

Antolatzailea

Topagunea
Euskara Elkarten Federazioa

Babesleak

Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Bata.
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura.

bbk

Laguntzailea

GETXO KULTUR Etxea
AVILA DE CULTURA DE GETXO

Gaztejainahaste

Selektah sound system +
(ARITZ DJ - DADDY JEFF MC)

Intxaurbreak

+

Afrika

+

DJ Axular + Perkusio festa

GETXO
Areetako karpapea

azaroak 26
ostirala
20:00etan

sarrera doan